

## Nafarroako foralitatea eta konstituzio federal proiektuak (1873-1883)

JURGI KINTANA GOIRIENA\*

### SARRERA

**XIX.** mendeko Europa, Antzinako Erregimenaren amaiera agonikoaren eta liberalismoaren gailentzearen lekuko izan zen. Ipar Euskal Herrian Frantses Iraultzak Erregimen Zaharra bat-batean akabatu bazuen, Hegoaldean aldaketa ez zen samurragoa gertatu: euskal foruen iraupenak espainiar konstituzionalismo hazkorrekin jo zuen, biak bateratzea nekez lor zitekeelarik. Foruen arazori edo —beste ikuspegi batetik begiraturaz— espainiar kontituzioen arazoari irteera emateko saiakera desberdinek, ez zuten luzaz konponbide iraunkorrik erdietsi. Liberalak eta karlistak izan ziren borroka honen protagonista nagusiak, gerra irekia bi alditan.

Nafarroan (1) liberalek foru erregimena konstituziora egokitzen zuen «lege itundua» negoziatu zuten 1841 urtean, herritarren parte handi baten onespenez jaso gabe. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru auziaren ebazpena ez zen bigarren karlistada 1876an bukatu arte etorri. Hala, Canovas del Castillok gidaturiko liberalismo kontserbadore garaileak bere irizpideak ezarri zituen. Eta foru probintzietako erregimen bereziak deuseztuak izan ziren. Hala ere, gaitasun fiskal berriak eskuratu zituzten.

Bidean beste aukera batzuk geratu ziren, federala horien artean. Mugimendu hau minoritarioa izan zen Euskal Herrian eta eragin urria izan zuen gatazka honen guztiaren amaieran. Agian horregatixek historiografiak ez dio arreta handirik eskaini. Hala, karlismoari buruzko lan kontaezinen alboa, eta kopuru apalagoan egindako liberalismoaren gaineko obra ugariaren parean, ez dira asko federalismoa Euskal Herrian aztertzen duten ikerketak. Historiografiaren hutsune hau, berez, gaia jorratzeko gonbita da. Baina utzikeria erlatibo horrek ematen dituen aukerez gain, Euskal Herriko federalismoaren gaiak badu interesik bere baitan ere. XIX. mendeko konstituzio eta foruen auzia-

\* "Sancho el Sabio  
Fundazioa"  
I. Unibertsitate  
mailako ikerketa  
lehiaketaren irabazlea  
(1998)

(1) Artikulu honetan zehar Nafarroa diogunean Nafarroa Garaiaz ariko gara.

ren testuinguru horretan, hain zuzen, federalismoak arazoa konponzeko irtenbide alternatibo bat eskaini zezakeen eta.

Gure lanerako sarrera gisa, federalismoak Hego Euskal Herrian izandako hastapenak aipatuko ditugu. Gai honetaz dagoen bibliografia urriaren artean Javier Fernández Sebastián-en artikulua bat nabarmendu beharra dago (2). Han azaltzen denez, Euskal federalismoaren lehen pausoak *Eco Bilbaino* egunkariaren inguruan egin ziren, Seiurteko Demokratikoa hasi aurreko urteetan. Fernández Sebastián-en artikulua, halaber, Hego Euskal Herriko federalen ezaugarri izandako foruzaletasuna eta federalismo foruzale horren zailtasun teorikoak ulertzeko oso baliagarria gertatzen da. Federalek funtsean, foruen irakurketa aurrerakoa egiten zuten, Espainiako euskal herrialdeen antolaketan errepublika federalaren hazia ikusiz: eraketa liberal, demokratiko eta deszentralizatu. *Eco Bilbaino* egunkarian hasitako ikuspegi federal foruzale mistifikatu hau, sakonago landu zuten ondoko urteetan Joaquín Jamar gipuzkoarrak, Julian Arrese arabarrak eta Serafin Olave nafarrak (3).

Hego Euskal Herriko federalismoak Seiurteko Demokratikoan izandako gorabeheren informaziorik zehatzena Mikel Urquijoren doktorego tesiko atal batek ematen digu (4). Euskal Herriko federalek talde txikiak osatzen zituzten, hiriguneetan bilduak. Beren programa politikoa Espainiako gainerako federalenarekin bat zetorren (5), bereizgarritzat foruzaletasuna agertuz. Euskal Herriko federalen jardura xumean 1869an Eibarren egindako Itun Federala azpimarratu behar da (6). Itun honek Bilbo, Eibar, Gasteiz, Irun, Iruñea, Tolosa eta Tuterako komite errepublikarretako hogeita zortzi ordezkari batu zituen. Ekitaldian egindako dokumentuak dioenez, itunaren bidez lau probintzien artean kontseilu federal bat sortu behar zen. Foruen aipua

(2) FERNANDEZ SEBASTIAN, Javier: «Republicanos vascos en vísperas de la revolución de 1868: federales y fueristas», *Cuadernos de Alzate*, 1988, 9. znb., 16-30. orr.

(3) JAMAR, Joaquín: *Lo que es el fuero y lo que se deriva del fuero*, Establ. Tipográf. del Aurrerá, Donostia, 1868. Obra honi buruzko iruzkin labur bat Mikel URQUIJOren tesian aurki daiteke: *Liberales y carlistas. Revolución y fueros vascos en el preludio de la segunda guerra carlista*, EHU, Bilbo, 1994, 173-174. orr. ARRESE, Julian: *Descentralización universal ó el fuero vascongado aplicado á todas las provincias*, Madril, 1873. Jakin dugunez, laster José María ORTIZ DE ORRUÑO-k arabar federal honen lana edizio kritikoa berrargitaratu du EHUren *Textos Clásicos del Pensamiento Político en el País Vasco* bilduman. Serafin OLAVE nafar federalaren obrak aurrerago aipatuko ditugu (Ikus 2. 1. atala eta 41. oharra).

(4) URQUIJO, Mikel, op. cit., 167-179. orr.

(5) Espainiako ideologia federalaz ikus HENNESSY, C. A. M.: *La república federal en España. Pi y Margall y el movimiento republicano federal 1868-1874*, Aguilar, Madril, 1966; JUTGLAR, Antoni: *Pi i Margall y el federalismo español*, II Bol., Taurus, Madril, 1975

(6) Itun hauek alderdiaren zuzendaritza nazionalak bultzatu zituen eskualdeetako komiteei protagonismo handiagoa emateko. Aldi berean errepublika federala behetik nola erai ki zitekeen erakusten zuen saiakera izan nahi zuten. Ikus ESTEBAN, Miguel Angel: «De la esperanza a la frustración», TOWNSON, Nigel (arg.), *El republicanismo en España (1830-1977)*, Alianza Universidad, Madril, 1994, 87-112. orr., bereziki 99-100. orr.

ere egiten zen, gobernu era demokratiko eta errepublikar gisa deskribatuz. Ondoren foruak gordetzeko desioa adierazten zen, Espainia errepublika federal bihurtzeak, monarkiek ez bezala, hori bermatuko lukeela adieraziz («[...] *su actual régimen está completamente garantizado, constituida España en república federal y peligrará siempre bajo monarquías*») (7). Eibarko itunarekin loturik, hilabete pare bat geroago *Laurac-Bat* egunkaria argitaratzen hasi zen Bilbon, «*organo del pacto vasco-navarro*» (8). Euskal Herriko federalen hurrengo jardueretan foru auzia ez bide zen azaleratu. Eta hola garai iraultzailearen azken aldira heltzen gara.

Puntu honetan hasten da gure lana. Nafarroako kasua hautatu dugu, herrialde honetan federalismo eta foruen inguruko dokumentuak nahiko aberatsak direlako.

Aurreneko nafar federal batzuen biografiak, Angel Garcia-Sanzen liburuak jasotzen ditu (9). Guk Nafarroako federalen ekintza, antolaketa edo bizitzak aztertu baino gehiago, «federalismoa foruen aurrean» auzi ideologikoa landu dugu ikuspegi historikotik. Bi mugarriren inguruan mugitu gara, bi konstituzio proiektu ardatz harturik: 1873ko espainiar errepublika federal proiektua, eta 1883ko nafar Estatu federal proiektua. Beraz konstituzio saio bi hauen bidez foruen ikuspegi federala Nafarroako kasuan zertan gauzatu zen ikertuko dugu (10).

## 1. NAFARROA 1873KO ESPAINIAR KONSTITUZIO FEDERAL PROIEK - TUAREN AURREAN

### 1. 1. Konstituzio federal proiektuaren hastapenak

Errepublikar-federalak —berba ia baliokideak garai hartan— Katalunian eta Mediterraneo aldean nabarmendu arren, gutxiengo izan ziren Hego Euskal Herrian eta, oro har, Espainian. Hala ere, Seiurteko Demokratikoko gertaerek, Espainiako lehen errepublikaren aldarrikapena eta federalen boterera heltze laburra posible egin zuten.

Izan ere, Amadeo Saboiakoak 1873an abdikatu ostean, Gorteek, nahiz Alderdi Erradikalaren eskuetan egon (printzipioz monarkikoa zena), errepublika aldarrikatzea beste irteerarik ez zuten ikusi. Errepublikar federalaren eta zentralistaren artean aukera egiteko orduan, «*los radicales optaron por la unitaria en su casi totalidad; eso era lógico, pues se parece mucho á la monarquía constitucional democrática [que ellos preferían]*», Serafin Olave garaian Gorteetako

(7) Ikus *Pacto federal de Eibar*, 1869.06.23 (in URQUIJO, op. cit., 346-347. orr.).

(8) Ikus «Prospecto», *Laurac-Bat. Organo del pacto vasco-navarro*, Bilbo, 1869.08.30. Baita ere URQUIJO, op. cit., 168-169, 173-175. orr.

(9) GARCIA-SANZ, Angel: *Republicanos navarros*, Pamiela, Iruñea, 1985.

(10) Oharra: Transkribatuko ditugun gaztelaniazko testuetan jatorrizko dokumentuen ortografia bere hartan gorde dugu. Pertsona izenak ere, konbentzio segururik ezaz, garai-ko espainiar grafian utzi ditugu (Olave, Pi y Margall, ...). Espainiako konstituzioen testuetarako GONZALEZ-DORIAren liburuko eranskina darabilgu («Apéndices», *Historias de las constituciones españolas de Godoy a Suarez*, Cometa, Madril, 1986, 279-546 orr.), grafia gaurkoturik emanez.

diputatu izan zenak azaldu bezala (11). Alde horretatik, erradikalen gobernua, Estanislao Figerasen lidergoean, tesi federalisten kontra agertu zen, eta ez zuen adostasunik bilatu Pi y Margallen federaletan. Federalen aurkako higitze estrategia horrek, Espainiak bizi zuen krisi larriaren erdian, Figerasen gobernua eta erradikalen boterea ahultzea besterik ez zuen ekarri. Hala maiztaren 10eko bozketak, abstentzio handia bitarteko, Kongresuko diputatuen gehiengoa federaletan eman zien. Hego Euskal Herrian bertan, gerra karlistak ia erabateko abstentzioa eragin zuen, eta horrek hautaturiko hamazazpi diputatuetik hamaika federalak izatea ahalbidetu zuen. Nafarroa ordezkatu zuten bost diputatuen artean hiru ziren federalak: Serafin Olave, Francisco Huder eta Santos Landa, ondoz ondotik Oltza, Agoitz eta Tafallako hautes-barrutietan aukeratuak. Laugarren diputatu federal bat ere egon zen, Agustin Sardá. Iruñeko eta Tarragonako hautes-barrutietan aurkeztu zen eta bietan aukeratu zuten. Baina katalan barrutia ordezkatzeko erabaki zuenez, ez da nafar diputatu gisa agertzen.

Kinka politikoak federalak boterera eramane zituen. Era horretara, hilabete gutxiren buruan, errepublika federala sortzeko asmoa konstituzio federal proiektu batean gauzatu zuten. Hala ere, errepublika federala goitik eraikitzeko aukera horren kontra kantonalista edo federal intrantsigenteen alternatiba altxatu zen, errepublika federala behetik eratzea defendatuz. Federalismoaren barruko borroka horiek, krisi orokorrak gaiztoturik, ezinezkoa egin zuten inolako Estatu federalen jaiotzerik eta egonkortzerik. Eta laster federalismo osoa erori zen. Beraz 1873ko konstituzio federal proiektuak ez zuten aurrera egin. Hala ere, aukera interesgarriak eskaintzen zituen foru auziari begira, eta horixe aztertuko dugu Nafarroako kasuan. Segi dezagun prozesua hasieratik.

Pi y Margallen presidentziarekin bilduriko Gorte Konstituziogileek, 1873ko ekainaren hasieran errepublika federaletan erregimenaren alde bozkatu zuten. Konstituzio federal proiektua idazteko batzorde bat sortu zen. Batzorde horretan ez zegoen diputatu nafarrik. Dirudienez, helburua federazioa aurrez erabakitako Estatu batzuk osatzea zen. Nafarroa, Emilio Castelarren erabakiz Hego Euskal Herriko lau probintziak osaturiko Estatuan egongo zen. Eta nafar diputatuak ager zezaketen kontraketasuna saihesteko ez zieten lekurik egin batzordean. Nafar diputatuak kexatu eta euren ordezkarien parte hartzea eskatu zuten, zorte handirik gabe (12). Antza denez nafar diputatuak nahiago zuten Nafarroak bere aldetik Estatu federal bat osatzea. Hala Jose Maria Ercasti nafar liberalak Nafarroak aparte Estatu osoa zezala eskatzen zuen «*con arreglo a su historia, a su independencia y a los contratos que tienen hechos con las mismas Cortes Españolas y*

(11) OLAVE, Serafin: *El bu del socialismo y la union de la democracia*, Imprenta de la Nueva Prensa, Madril, 1878, 114. orr.

(12) Ikus PAREDES, Francisco Javier: *Serafin Olave, fuerista y republicano*, Colección Diario de Navarra, 27. zbk., Iruñea, 1983, 119-120. orr.

*por todos sus antecedentes de siempre.»* (13). Harrigarria gerta daiteke nafar diputatu federalak ere ez agertzea Hego Euskal Herrirako Estatu federal bateratuaren alde, lau urte lehenago, Eibarko itun federala «laurak-bat» ideian inspiraturik egin zenean. Horretan zerikusia izan dezake diputatu hauetako bat bera ere ez aurkitzea Eibarko 1869ko ordezkari nafarren artean (aldiz itun hartan egon ziren arabar, bizkaitar eta gipuzkoar ordezkari bana 1873ko diputatu federalen artean zeuden). Edonola ere, lurraldearen auzia behin betiko argitze-ko, Kongresuko nafar ordezkariak telegrama bat zuzendu zioten beren Foru Diputazioari. Lehen tokian «Nafarroa bakarrik» aukera ipini zuten, ondoren beste aukera batzuk ere proposatu:

*[...] Los Diputados por Navarra que suscriben, deseosos del mejor acierto, así como de interpretar los deseos de sus comitentes, ruegan á V. se sirva hacer presente á esa Corporacion que oirán con agrado todas las observaciones que tenga á bien dirigirles acerca de los siguientes puntos. - 1.º ¿Convendría que Navarra constituyese por sí sola un Estado Federal? - 2.º En caso contrario sería preferible su union a las provincias vascas, a las de Aragon, ó la Rioja? - Es cuanto tenemos el gusto de manifestarle encareciendo la urgencia de la contestacion. [...] -Santos Landa. -Santiago Gimenez. -Francisco Huder. - Serafin Olave. -José María Ercazi. (14)*

Telegrama honen haritik Estatu federalari buruzko eztabaida Nafarroari dagokionez Madrilgo Kongresutik Iruñeko Diputazioara lekualdatzen ikus dezakegu. Hola Foru Diputazioak 1873ko ekainaren 19an aparteko bilkura egin zuen auzi hau aztertzeko. Bilkura haren aktak, federalismoaren ganean eztabaida sakonegirik eskaini ez arren, badu interesik (15).

(13) Honako lanean aipatua: AGIRREAZKUENAGA, Joseba et al.: *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia. 1808-1876*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1993, 363. orr. Hala ere ez zaigu adierazpen honen data esaten eta Nafarroako Diputazioak ildo berean eman-dako erantzunaren ostekoa izan liteke. Diputazioaren iritzia aurrerago landuko dugu.

(14) Telegrama hau honako dokumentuan jasoa dago: *ACTA DE LA EXCMA. DIPUTACION DE NAVARRA RELATIVA AL ESTADO FEDERAL*, Imprenta Provincial, Iruñea 1873, 4. orr.

(15) Akta urte hartan bertan argitaratu zen. Beharbada prozesu konstituziogilearekin zerikusia zuen gai bat aztertzen zuenez, publiko egitea merezi zuela iritzi zioten. Edozelan ere aktak erabilpen urria ezagutu du historiografian. Batetik aipu bibliografiko soil bat daukagu in Jon BILBAO: *Eusko Bibliographia. Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, Donostia, 1979, VII. bol., 139. orr. Idoia ESTORNESEk hiru lerrotan laburtzen du (in «Aproximación a un estudio de las elecciones y partidos políticos en Euskadi», AROS-TEGUI, Julio et al., *Historia del Pueblo Vasco*, Erein, Donostia, 1979, III. bol., 166. orr.). Berrikiago, analisi sakonetan sartu gabe aktaren puntu batzuk laburtzen ditu honako lanak: MARTINEZ, María Soledad - SANTOS, Francisco: «Guerra y cambio político», TORRE, Joseba de la (arg.), *Navarra siglo XIX. Cien años de historia*, Instituto Gerónimo de Ustariz, Iruñea, 1994, 239. orr.

## 1. 2. Estatu federalari buruzko eztabaida Nafarroak o Diputazioan (1873.VI.19)

Bilkuran Foru Diputazio Iraunkorreko zazpi kideetarik sei egon ziren present, euren artean presidente edo diputatu nagusia. Baita Iruñeko alkatea eta merindadeetako hogeitau partikular baino gehiago ere, zeinak nafar hiriburuan bizi eta Diputazioak deitu zituen. Partikular hauen ezohiko presentzia, karlistadaren ondorioz Iruñeak bizi zuen isolamenduaren testuinguruan kokatu beharra dago: gerraren ondorioz merindadeetako ordezkariak normalki aukeratu eta etortzea ezinezkoa baitzen. Hortaz Diputazioa bando liberaleko kidez osaturik zegoen eta horrek bere islada izango zuen aktak jasotako ideietan.

Bilkurak atera zuen ondorioa, argiro laburbiltzen da egun horretan bertan Madrilgo nafar diputatuei telegramaz bidalitako erantzunean: «[...] conviene que Navarra constituya por sí sola un Estado Federal, salvando en todo caso su autonomía foral dentro de la Unidad Constitucional como hasta el presente.» (16) Nafarroako foralitatea mantentzea, batez ere bere autonomia ekonomiko-administratiboari zegokionean, aktak etengabe agertzen duen eskaria da. Eta foru autonomia horren iraupena segurtatzeko lurralde artikulaziorik onena, Nafarroa beste inorekin ez batzea zatekeen (17). Hola aktan jasotako iritzi guztiak, printzipioz, Nafarroak Estatu federal bat bere baitan osatzearen aldekoak ziren.

Asmo orokor hori hobeto funtsatzeko, Diputazioko presidentearen aginduz argumentu historizistak zerabiltzan diktamen luze bat egin eta irakurri zuen Francisco Baztan y Goñi idazkariak (18). Bertan Nafarroaren ibilbide indibidualizatua gainbegiratzen da, zenbait dokumentu zahar transkribatuz. «Espainiar Erreinura inkorporatu» aurreko garaian, «Navarra era celosa en extremo para que su territorio no fuese nunca partido ni dividido, ni ménos enagenado ó cambiado ó anexionado á otro Reino ó tierra.» (19) Gaztelako Koroara lotzea «por union principal» egin zela esaten da eta Nafarroak bere baitako erreinu izaten segitzeko baldintzapean. Garai guztietan erregeek Nafarroako foru, usadio eta ohiturak gordetzeko zina egiten zutela azpimarratzen da. Ondoren aldi liberala dator, foru eta konsti-

(16) ACTA DE LA EXCMA. DIPUTACION ..., op. cit., 20-21. orr. Erantzun telegrama hau PAREDESek ere jasotzen du (op. cit., 120. orr.).

(17) Hola arrazoitzen zuen adibidez batzarrean present zegoen Antonio Corrozak: «que á Navarra no solo la era importante formar por sí un Estado propio, sino que era necesario ó imprescindible que así fuese; que su propia legislación civil y administrativa no la permitían union de ninguna clase; que tan cierto era eso, que bastaba observar que nuestra legislación civil tenía por suplementaria no a la Castellana ó Española, sino á la Romana» in ACTA DE LA EXCMA. DIPUTACION ..., op. cit., 5. orr.

(18) Baztan y Goñi, 1858, 1868 eta 1871an Lizarratik foru diputatu izana, Diputazioko idazkaritzan zegoen 1871tik. Foruzale eta libreganbioaren aldeko sutsua omen zen.

(19) ACTA DE LA ..., op. cit., 6. orr.

tuzioa elkartzeko zailtasunekin. 1839ko Espainiako Gorteetan diputatuek egindako adierazpen batzuk jasotzen ditu aktak, guztiak ere foruen eta konstituzioaren irakurketa adiskidetzailera emanez. Horrekin badirudi diktamenak bere egiten dituela argumentazio horiek, nahiz esplizituki esan ez. 1841eko «lege itundua», foruen interpretazio horri segituz egin zenik ere ez da adierazten. Baina espero zuten konponketa hori zela ondoriozta daiteke. Zentzu horretan, ezagutu egiten da lege hark emaniko gaitasunetan sostengatzen dela *«todo el edificio foral en lo económico-administrativo»* Nafarroaren kasuan. Hortaz, ontzat ematen da 41eko konponketa (20). Eta errepublika federala heltzean, nafar Estatu propio bat nahiago izatea, jarraitasun ildoan uler daiteke. Era horretara, Nafarroaren ordurarteko errejimena ia ez zuen inolako aldaketarik ezagutuko:

*Constituïda Navarra en un solo Estado, y aceptando la unidad política en cuanto se refiere al respeto y acatamiento de un solo Presidente de la República federal Española y de un solo Parlamento ó Parlamentos Centrales, y las altas leyes políticas no opuestas á su autonomía foral, en lo demás [Navarra] puede gobernarse en todo lo económico-administrativo por sus fueros y leyes, [...] pues así ha venido existiendo hasta la fecha sin oposicion contraria.* (21)

Hau da Baztan y Goñi idazkariaren diktamenak defendaturiko eredu, eta duda barik Diputazioak onartzen zuena. Madrildik bidalitako telegraman aipatzen ziren gainarako lurralde aukerak, idazkariaren txostenak aztertzen ditu baina bat bera ere ez da asegarria gertatzen. Hola, Aragoi edo Gaztelari buruz azaltzen zaigunez, euretako bakoitzean *«hay intereses generales creados, completamente diversos á Navarra»*. Horregatik Nafarroa lurralde horiei lotuz gero *«no podia llegarse nunca á una uniformidad en ningun asunto»*. Ondorioz holako batasunek *«traerian una perturbacion inmediata»*. Bukatzeko foruen defentsarako argudioak ematen dira, Nafarroa barne hartuko lukeen Estatu federal handi batek uniformetasuna bilatu eta nafar foralitateari kalte egingo liokeela suposatuz (22). Nafarroa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin batzeko aukera nolabaiteko aldekotasuna duen alternatiba bakarra da. Hola, Ramon María Badarán abokatu faltzestarrak (23) ondokoa adierazi zuen:

*era su opinion concreta y fija que Navarra formase por sí el Estado Federal; pero que si la política conducia el asunto á un*

(20) Op. cit., 17, 19. orr.

(21) Op. cit., 15. orr.

(22) Op. cit., 15-17. orr.

(23) Ramon María Badarán abokatu eta politikoa, Seiurteko Demokratikoan Sagastaren Alderdi Konstituzionaleko kide izan zen, Borbondarren Berrezarkuntzarekin Alderdi Liberal Fusionistara igaroz.

*extremo de tener que formar el Estado en union de otra Provincia opinaba por la agregacion ó union con las provincias vascongadas, fundado en que estas tenian y tienen interés en conservar sus fueros como se tiene en Navarra, y que por otra parte esa agregacion, bajo la base ya expuesta, traería la ventaja mercantil, ó sea la de los puertos de mar que en esas Provincias existen. (24)*

Baztan y Goñiren diktamenak merkatal abantaila horiek onartu eta are antzeko gehiago aipatzen ditu. Alta, foru arrazoietara itzuliz, Nafarroa eta hiru euskal probintziak elkartzeak lege bateraezintasuna eragingo lukeela adierazten du:

*[...] nos encontramos con que ellos tienen su autonomía foral propia, que aunque inmejorable en su caso y para ellas, como juzgamos la nuestra para nosotros, habría de sufrir un gran quebrantamiento ó sino la nuestra, si había de marcharse de acuerdo en el Canton que formasen las cuatro Provincias: de ahí las protestas mútuas. (25)*

Hortaz nafar, arabar, bizkaitar eta gipuzkorrak elkartzen zituen interes foruzaleak, bakoitzaren foruak desberdinak izatean, lau probintzien bateratzea erraztu barik, banan artikulatzera zeramatzan. Nafarroaren kasuan behintzat banako aukera hori defendatzen du diktamenak. Are gehiago: Estatu federal «vasco-navarro» bateratua ez sortzeko ematen den argudioetako bat, lau probintziek komunean agertzen zuten beste ezaugarri bat zen: «*el espíritu político que en mayoría preside á las Provincias Vascongadas y á Navarra*». Baztan y Goñiren testua, hizkuntza iluna erabiliz eta sekula aipatu gabe, Hego Euskal Herrian nagusi zen karlismoaz ari da. Mugimendu honen aurrean erabateko etsaigoa agertzen du diktamenak, baita absolutismoa inposatzeko haren asmoa salatzen ere. Ildo horretan Hego Euskal Herrirako Estatu federal bakarra sortzeari erabat desegokia irizten zaio, ze sufragio unibertsala baliatuz karlistek gotorleku sendoa ezarriko lukete bertan, Espainia osoarentzat nahasmendu iturri litzatekeena. Gure idazkariak gogoan zeukan nafar Estatu bat gaitz berberak jo zezakeela. Halabaina arazoa txikiagoa litzatekeela deritzo eta denboraz desagertzeko esperantza legoke. (26)

Amaitzeko, diktamenak, Nafarroak edozein kasutan bere foralitatea gorde behar duela azpimarratzen du: bai probintzia bakarreko Estatu federal gisa geratzen bada, desio denez; eta bai beste lurralderen bati atxikiz gero ere.

(24) Op. cit. 5-6. orr.

(25) Op. cit., 17. orr.

(26) Op. cit., 18. orr.



Bilkuran zeuden kideek ez zuten diktamenaren kontrako iritzirik agertu eta ohar gutxi batzuk erantsi zituzten zentzu berean. Luis Martínez de Ubago Iruñeko alkateak adierazitako kezka konfesionala aipa daiteke: *«que declarada en la Constitución republicana la independencia de la Iglesia y el Estado, si podría ser admitida esa disposición constitucional dentro de nuestra legislación foral»*. Baiezko erantzuna eman zion idazkariak eta 1841eko «foru legean» zegokion artikulua zehaztu zuen (26. art.), horrekin guztiak konforme geratuz (27). Puntu horretara helduta, erabateko adostasunez ebatzi zuten komenigarriena Nafarroak bere baitako Estatu federala osatzea zela. Ondoren, gorago aipatu dugun erantzun telegrama igorri zieten Madrilgo nafar diputatuei.

### 1. 3. Konstituzio federal proiektua eta bere aukerak foru auziari dagokionean

Hurrengo egunetan, Madrilgo nafar diputatuek, zenbait gora-beherearen ostean, batzorde konstituziogilean ordezkari zela lortu zuten. Beste hiru euskal probintziatako diputatuekin akordio batera iritsi ziren eta Serafin Olave aukeratu zuten batzordeko ordezkari (28). Batzordea pribatuki biltzen zen eta ez dugu bertako akten berrik. Hala ere, Olavek geroago idatzi zuenetik, badakigu arazoak egon zirela Nafarroa banako Estatu federal gisa onartzeko, Castelarrek txikiegia zeritzon eta (29). Nafarren asmoa baina, Olavek defendaturik, gailen irten zen: batzordeak Gorteetan uztailaren 17an aurkeztu zuen konstituzio federal proiektua, eta bere lehen artikuluan Nafarroa, espainiar nazioa osatuko zuten Estatuetakoa bat bezala izendatzen zen (bestalde, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, *«Regiones Vascongadas»* izenpean batzen ziren).

Konstituzio proiektu honek ez zioen ezer foru auziaren gainean eta ez dakigu gai hau batzorde konstituziogileak eztabaidatu ote zuen. Edozelan ere, Nafarroak une hartan zuen foru erregimena arazorik gabe sartzan zen konstituzio proiektuak Estatu federalei ezagutzen zizkien eskuduntzetan (XIII. tit.). Horretan, 92. artikulua argia da: *«Los Estados tienen completa autonomía económico-administrativa y toda la autonomía política compatible con la existencia de la*

(27) Op. cit., 19-20. orr. 1841eko legearen 26. artikulua ez du zuzenean auzi hori argitzen, dioen gauza bakarra, eliza sutengatzeko ordainketak Estatu lege orokorraren bidez egingo direla da. Beraz Eliza eta Estatuaren arteko banaketa onartzeko, idazkariak, 26. artikulua irakurketa zabala egin zuen. Hori bai, zuzen zegoen, konstituzio errepublikarrak erlijioa subentzionatzeko botere publikoei ezartzen zien galarazpena «lege itunduen» arabera errespetatu egin beharko zela ulertzean. (1841eko legearen testua in HUICI, Vicente - MADARIAGA, Juan: *Euskal Herria egungo aroan: materiale eta agiria*, III. bol., Kriselu-UNED, Bergara, 1989, 684 orr.)

(28) Ikus PAREDES, op. cit., 121-123. orr.

(29) OLAVE, *El bu del socialismo...*, op. cit., 53. orr.

*Nación.*» 96. artikulua autonomia horren edukia hobeto zehazten du: «*Los Estados regirán su política propia, su industria, su hacienda, sus obras públicas, sus caminos regionales, su beneficencia, su instrucción y todos los asuntos civiles y sociales que no hayan sido por esta Constitución remitidos al Poder federal.*» Udalerriek ere «*tienen en todo lo municipal autonomía administrativa, económica y política*» (XIV. tit., 106. art.). Beraz Nafarroari autonomia ekonomiko-administratiboa eta munizipala ahalbidetzen zizkion 1841eko foralitatearen gaitasunak proiektuan jasotzen ziren eta are arlo judizial eta politikora zabaltzen: 101. artikulua zioenez, Estatu federalek askatasun osoz eratuko zituzketen beren botereak, baina banaketa legislatibo, exekutibo eta judiziala errespetatuz. Hala, Nafarroako auzitegi eta Gortekak berrezartzeko aukera zegoen.

Federazio edo botere zentralari zegozkiokeen eskuduntzek (V. tit. eta beste artikulua batzuk) Nafarroak Antzinako Erregimenean zuen foralitateari kalte egingo zioten (30). Baina abiapuntuztat 1841eko foralitate «itundua» hartzen badugu, federazioaren eskuduntzek ez zuketela inolako mugapen edo kontraforu aipagarrikerik eragingo (31). Hori bai, Nafarroan elementu aurrerakoiak sartuko zituzketen (gizonezkoen sufragio unibertsala, laikotasuna,...), baina foralitate «itunduko» artikulurik bat ere hautsi gabe. Halaber, aipatu beharrekoa da, botere judizialari dagokion X. tituluak ez dioela ezer kodeak bateratzeari buruz (32). Era horretara Nafarroako zuzenbide zibila manten-

(30) Nafarroako legeria zaharrari kalte egingo lioketen artikuluen artean, besteak beste, honako hauek aipa daitezke: erakunde eta organo publiko guztiei erlijioa subentzionatzea galaraztea (36. art.); agintari militarren izendapena federazioaren esku jartzea (V.6. tit.); aduana eta mugasarien eskumena federazioari egokitzea (V.17. tit.); hauteskunde mota oro, eskualdeetakoak eta udalerrietakoak barne, gizonezkoen sufragio unibertsalez egin beharra (94, 106. art.); Estatuak izan dezaketela indar publiko bakarra poliziala izatea (101. art.); Herritar (gizonezko) guztiak erreserba militarren parte izatea eta urtero ariketa militarrik egin beharra (113, 114. art.); e. a.

(31) 1841eko «Lege Itunduak» Nafarroako autonomia espainiar Estatu-nazioarekin bateragarria egiteko mugatu zuen, eta ondorioz 1873ko konstituzioaren arabera federazioari zegozkion eskumenak, jada lege hark Estatu zentralari ezagutzen zizkion. Hortaz, aurreko oharrean aipatu ditugun kontraforuak, 1841az geroztiko foralitate berrian ez lirarteke egongo: konstituzio federalaren 36. artikulua, lege itunduaren 26. art.-arekin bat dator; V.6. titulua, 1. art.-arekin; V.17. titulua, 16. art.-arekin; 94. eta 106. art.-ak, 9. eta 5. art.-ekin; 113. eta 114. art.-ak, 15. art.-arekin; e. a. Ikus *Constitucion federal de la I República Española* (in GONZALEZ-DORIA, op. cit., 391-404. orr.) eta 1841eko «lege itundua» (in HUICI - MADARIAGA, op. cit., 681-684. orr.). Zailtasun handiagoak zeudekeen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foruak 1873ko konstituzio federal proiektura egokitzeke. Izan ere, hiru probintzia hauek lehen karlistada ondoren ez zuten inolako lege aldaketarik adostu euren foru erregimenak aldatzeko (nahiz murrizpen batzuk indarrez ezarri zitzaizkien).

(32) Kontrakoa gertatzen zen bai aurreko zein ondoko konstituzioetan (1869koan 91. art. eta 1876koan 75. art.). Haietan adierazten zenez, «*unos mismos códigos regirán en toda la monarquía*» (ikus GONZALEZ-DORIA, op. cit.). Artikulu berberetan tokio aldiak egoteko aukera onartu arren, Nafarroako legeria judizial berezia desagertarazteko arriskua present zegoen, Lege Itunduaren 2. artikulua arabera hura kodeak bateratu arte mantenduko baitzen. Azkenean, ordea, 1889an Espainiako kode zibila egitean tokiko legeria bereziak errespetatu ziren.

tzea erabat bermatuko zen. Eta uste izatekoa da fosil gisa gorde barik, Nafarroak edukiko zuen botere legislatiboari esker foru zuzenbide hori garatu ere egin ahalko zela. Are gehiago Estatu federal bakoitzak botere judizial propioa eratuko zuela kontuan hartuz. Beraz, letran, Nafarroako foruak eta konstituzio federala, elkarrekin arazorik gabe egokitzen ziren.

Hala ere, azken hau bultzatzen zuen izpiritu berritzailea zela eta, nekeza izango zen nafar populazioaren zati handi batentzat, agian gehiengoarentzat, konstituzioa onartzea. Batez ere konstituzio proiektuaren laikotasunagatik (35. art.) eta Eliza finantziario publiko gabe uzteagatik (36. art.). Ez dezagun ahantz aurreko konstituzioa (1869koa) erlijioaren auzian horren zorrotza izan ez arren, Elizaren kontrakoa iruditu zitzaiea karlistei (33). Eta jada aipatu dugu Nafarroako Diputazio liberal berean duda bat agertu zela konstituzio proiektu berriak aldarrikatzen zuen laikotasunaren inguruan. Puntu horrek eta beste batzuek ez dirudi harrera onegia edukiko zuketenik Nafarroan. Hortaz, 1873ko konstituzio proiektuaren jatorri iraultzailea onartzeko zailtasuna hor egonik ere, proiektuak nafar autonomia segurtatu eta handituko zukeen.

Beharbada, konstituzioaren inguruan zabal eta soseguz debatitu izan balitz, posible zatekeen susmo txarrak uxatu eta kontrakotasunak gainditzea. Baina altxamendu kantonalaren, gerra karlistaren eta beste arazo larri batzuen ondorioz, konstituzio proiektua ia ez zen eztabaidatu. Hiru debate egun baino ez zitzaizkion eskaini eta ez zen onartzera heldu. Geroagoko sesio batean diputatu batek lau euskal probintziak osatutako Estatu federal baten alde hitz egin zuen laburki, batasun hori nazionalitate terminutan justifikatuz (34). Hala ere, Estatu federalaren inguruko eztabaida ez dirudi gehiago plazaratu zenik (35). Gorteak irailaren erdialdera bertan behera utzi ziren eta Gorteen hurrengo bilkuran ez zen gaia berreskuratu: Pavia jeneralak 1874 hasieran Estatu-kolpea eman eta parlamentua itxi zuen. Kolpe hura errepublikaren amaieraren hasiera izan zen, bai eta Estatu federala aurrera eramateko aukerarena ere.

Konstituzio federala gauzatu ez bazen ere, esan beharra dago proiektu hark, nafar kasuan, irtenbide adiskidetzaille bat ahalbidetzen

(33) 1869ko konstituzioak karlistengan sortarazi zuen erreakzioaz, ikus URQUIJO, op. cit., 126-136. orr.

(34) Justo Maria Zavala diputatu federalaren iritzia zen. Gipuzkoar federal hau Eibarko 1869ko itunaren sinatzaileetako bat izan zen, baita *Laurac-Bat* aldiizkari errepublikarraren kolaboratzailea ere. Kongresuan esandako hitzak hauek izan ziren (1873.09.02): «*Como siempre he sostenido, que la historia, la tradición, idioma, la raza, todo está allí recordando la formación de un Estado [federal], si no con las cuatro provincias que ha sido mi idea constante, a lo menos con las tres vascas*» (Luis CASTELLSek aipatua: «El sexenio democrático y su repercusión en Guipúzcoa», *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario oblatae*, EHU, Gasteiz, 1985, 2. bol., 1286. orr.).

(35) Aurkitzen saiatu arren ezin izan ditugu 1873 urteko Diputatuen Kongresuko Aktak kontsultatu. Hortaz bigarren eskuko iturriekin jarraitu dugu bertako eztabaida, eta baliteke hemen aipatu beharko genukeen daturen bat eskapatzea.

zuela foruen eta konstituzioaren arteko gatazka luzea konpontzeko (ez dugu esango soluzio bakarra edo logikoena hori zenik, baina bai posibleetako bat). Nafarroa Estatu federal bilakatzeak, bertako legeria berezia, lurralde hartako kode propio gisa ezagutaraziko zukeen. Kode hori nafarren beren gogoaren menpe geratuko zatekeen, gobernu zentralen erabakien pean egon barik. Puntu honetan Nafarroako Diputazioaren aktara itzuliko gara, arlo honetan hutsune nabarmenak agertzen ditu eta. Iruñean bildutako kideetako batek ere ez zuen agertu inolako iritzirik errepublika federalak nafar autonomia behin betiko ezar zedin eskaintzen zuen aukeraren gainean. Hau harrigarria gertatzen da, batzarrean bildutakoen kezka nagusia foralitatea mantentzea zela kontuan hartuz. Lurraldetasunaren auzia bera, hots, Nafarroak bere baitako Estatu federala osa zezan zegoen interesa, foru erregimena mantentzeko xede nagusi horren menpe zegoela dirudi.

Nafarroako foruen defentsa hori gora-behera, auzi ohargarri bat agertzen zaigu hemen: Madriler a bidalitako telegraman ongi laburbiltzen denez foralitatea «*como hasta el presente*» gorde nahi baitzen. Ildo horretan, Baztan y Goñiren diktamenak, Nafarroa Estatu federal bihurtzeko aukera kontsideratzean, nafar autogobernua eta erakundeen antolaketan aurrikusten zituen aldaketa ia bakarrik nominalak ziren:

*Suponiendo á Navarra como Estado aparte, dentro de sus facultades actuando en todo lo económico-administrativo y teniendo al frente la Diputación actual, con ese nombre ó el de Congreso ó Consejo Federal, pues el nombre no hace á la cosa, los pueblos girarian dentro de su órbita autonómica y lo mismo la Diputación en lo provincial.* (36)

Hortaz Diputazioak 1841eko legeak emandako foru autonomia ekonomiko-administratiboa gorde nahi zuela ematen du. Ez gehiago, ez gutxiago. Eta horixe da harritzen gaituena: gehiago ez eskatzea. Foru berrezarpen osoa, edo partziala bederen, ez da inon aipatzen. Ez da esaten ere, beste hitz batzuk erabiliz, Estatu federalak eskaintzen zituen aukerei esker, Nafarroak, lehen gerra karlista ostean galdu zuen autonomia politikoa eta botere legislatiboa berreskura zitzakeela. Are gutxiago egiten da Nafarroaren jatorrizko subiranotasun edo independentziaren aipamenik. Ezta modu erretorikoan ere, historia gainbegiratzean.

Aitzitik, defendatzen den bakarra 1841eko foralitate «itundua» da. Lege hori eta handik eratorririko autonomia behin baino gehiagotan aldarrikatzen dira (37). Foruen inguruan egindako salbuespen horre-

(36) ACTA DE LA EXCMA. DIPUTACION ..., op. cit., 15-16. orr.

(37) Baztan y Goñiren diktamenak jasotzen duenez, Diputazioak Errepublikaren aldarrikapenari bere atxikimendua agertu zion, beti ere ekintza horrek 1841ean itundutako foralitateari ez ziezaiola kalterik egin adieraziz. Eta lege hori «*debe salvarse para ahora y todo tiempo*» esaten zen, zeren 1873ko martxoaren 10eko Buletin ofizialean jasotzen zenez, Nafarroako Diputazioak, Bergarako hitzarmenean egindako promesaren gauzatzea zeritzon. Ikus ACTA DE LA EXCMA. DIPUTACION..., op. cit., 19. orr.

kin Espainian Estatu liberal zentralista eraikitzekeo prozesu orokorra ontzat ematen dela dirudi. Gainerako lurralde guztiei eragin zien uniformizazioaz ez dago kritikarik edo oharrik bat ere. Batasun nazionala gogoz onartzen da (38). Seguru asko botere legislatiboa Espainia osorako bakarra izatea ondo ikusteraino (39). Honen azalpena 1873an bildutako nafar Diputazioaren osaketarekin loturik bide dago. Diputazio hura liberala zen, hau da, 1841eko akordioa egin eta Estatu eredu zentralizatzailea bultzatu zutenen oinordeko ideologikoak ziren. Beraz, ez da hain arraroa orduan lorturiko Espainiaren artikulazio nazionala eta nafar foralitate «itundua» guztiz onartzea.

Dena dela, eta foralitate harekin ados egonagatik, harritzekoa da hain errebindikazio foruzale sendoak egiten zituen Nafarroa hartan, Estatu federalaren etorrerak eskaintako aukerak bere Diputazioak kontuan ez hartzea; hots, Estatu federalari buruzko akta osoan aipatu ere ez egitea Nafarroako foralitatea sendotzeko zegoen abagunea eta autogobernua handitzeko aukera. Birtualtasun horiek guztiz baztertzeko zeuden kausen gainean espekulatu besterik ezin egin dezakegu. Beharbada Diputazioa nagusiki liberal moderatua zenez, bertako kideek ez zuten errepublika federalean sinesten. Eta hortaz, euren ustez hain emaitza ona eman zuen 1841eko foralitatea bere hartan defendatzera mugatu ziren. Edo baliteke uneko ezegonkortasun politikoak, konstituzio proiektu berriaren arrakastaren inguruan mesfidantza eragitea. Eta zuhurtziaz Nafarroa lehen zegoen bezala geratzeko eskatzea. Litekeena da, era berean, federalismoaren esangura ondo ez ulertzea eta haren ezarpenak Nafarroari ekar diezaiokkeen abantailak ez ikustea. Egia esan, federalismoari buruzko espainiar lan teoriko nagusia —Pi y Margall *Las nacionalidades*— oraindik idazteke zegoen garai hartan. Nafarrek egindako lan federalistarekin ere ezin aurki zitekeen 1873an, laster agertuko baziren ere. Diputazioaren apatia esplikatzen duen arrazoietakoa bat, beharbada, horrelako irakurgaien gabezia izan zen. Nafarroa federalismoarekin lotzen zuten lan teorikoak, orduan Madrilgo Kongresuan zegoen nafar diputatu batek egingo zituen: Serafin Olave federalak. Lotura haritzat pertsonaia hau hartuz, jauzi kronologiko bat egingo dugu Nafarroako foralitatearekin zerikusia izan zuen hurrengo konstituzio federal proiektura.

(38) Horren adierazgarri, aktak dakarren adibide bat: Martínez de Ubago Iruñeko alka-tearen hitzetan, «*Navarra debía conservar siempre su unidad con la Nación Española sin aspirar á la independencia.*» Op. cit., 20. orr.

(39) Adierazpen espliziturik egon ez arren, zati desberdinek horixe pentsarazten dute. Baztan y Goñiren diktamenak dakartzan 1839ko espainiar Gorteetako adierazpenen artean, Lorenzo Arrazola orduko Grazia eta Justizia ministroaren iritzia jasotzen, eta itxuraz konpartitu ere egiten du. Arrazolarentzat batasun konstituzionalak hau inplikatzeko du: «*un solo Rey constitucional, un mismo poder legislativo, una representación nacional común*» (op. cit., 13. orr.). Eta ez dezagun ahantzi Diputazioak Madrilera bidalitako erantzun gutu-nean nabarmentzen zenez, Nafarroak «*dentro de la Unidad Constitucional*» geratu behar zuela. Halaber esanguratsua da, Nafarroak Estatu federal bat osatzea suposatuz, diktamenak agertzen duen insistentzia organo zentralerikoa leialtasuna azpimarratzen («*[Navarra mostraría] respeto y acatamiento de un solo Presidente de la República federal Española y de un solo Parlamento ó Parlamentos Centrales*» op. cit., 15. orr.).

## 2. 1. Aurretikoak

Serafin Olave y Diez (1831-1884), nafarren semea baina Sevillan jaioa, karreraz militarra izan zen, gero politikan jardunez (40). Federalismo foruzaleari buruzko liburuak 1875 eta 1878 artean argitaratu zituen. Euren azterketa zehatza egiteke dago (41). Hori egitea gure lanaren muga eta helburuetatik kanpo geratzen da. Olaveren federalismo foruzalearen ezaugarri nagusiak aipatu besterik ez ditugu egingo. Oro har garai iraultzaileko euskal foruzaletasun errepublikar-rerengandik ez zen aldentzen. Hala ere, Olavek ikuspegi eskusiboki nafarra ematen zuen. Areago kritikoa azaltzen zen beste hiru euskal probintzien foruekiko. Olavek Erdi Aroko Nafarroako erakundeetan gobernu errepublikar eta demokratikoa zekusan, itunetan oinarritua, baina denboraz monarkiek eta absolutismoak usteldua. Liberalismo zentralista ere kritikatu egiten zuen, autonomia guztiak itotzeagatik. Hortaz, garai berrietara egokituriko foru antolaketa berreskuratu eta Espainia errepublika federal bezala antolatu behar zelako ondorioa ateratzen zuen.

1883an Olaveren gogoeta federal-foruzaleak Nafarroarako konstituzio proiektu batean gauzatu ziren. Izan ere, aurreko urtean, Pi y Margallek gidatutako alderdia, probintzietako ordezkarien batzarrean bildu, eta bertan erabaki zenez, etorkizuneko espainiar errepublika federala osatuko zuten eskualdeek, bakoitzak beretzat nahi zuen konstituzio erregionala idatzi beharko zuen. Horri jarraituz, Nafarroako Alderdi Errepublikar Demokratiko Federalak, bere konstituzio proiektua Tuteran 1883ko martxoaren 4an onartu zuen (42). Proiektua oinarri konstituzional multzoa zen, nafar errepublikarren idea nagusiak jasotzen zituena «*sin descender á los detalles de un articulado dema-*

*siado concreto; dejando así á las necesidades prácticas de los tiem-*

(40) Bere biografiarako ikus PAREDES, op. cit.

(41) PAREDESEK Olaveren ideologia bost orrialdetan laburbiltzen du (Op. cit., 134-139. orr.). Hortaz, aitzindaria izan arren, lan horrek ez du gaia agortu. Serafin OLAVEren argitalpen foruzale-federalista nabarmenenak honakoak dira: *Antiguas tradiciones de Navarra y su oposicion al absolutismo*, Madril, 1875; *Reseña histórica y análisis comparativo de las constituciones forales...*, op. cit., Madril, 1875; *Tradicion y progreso*, Bartzelona, 1877 (2. arg.); *El pácto político como fundamento histórico general de la nacionalidad española y especialmente como manifestación legal de la soberanía independiente de Navarra...*, op. cit., Madril, 1878; *El bu del socialismo...*, op. cit. Ikus bibliografia.

(42) Tuterako konstituzio proiektua urte hartan bertan argitaratu zen: OLAVE, Serafin: *Constitucion futura de Navarra. Bases redactadas segun el espíritu de los antiguos Fueros acomodados á las formas modernas, y aprobadas en Tudela el 4 de Marzo de 1883 por la Asamblea Regional del Partido Republicano, Democrático, Federal, Navarro*. Establecimiento tipográfico de Casiano Jáuregui, Calahorra, 1883. Azken urteotan berriro argitaratu izan da eranskin gisa (baina bere hitzaurrerik gabe): PAREDES, op. cit., 151-162. orr.; ESTORNES, Idoia: *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza* (1918-1931), Eusko Ikaskuntza (Cuadernos de Sección. Historia y Geografía nº 14), Donostia, 1990, 572-576. orr. (zeinek iturri hau darabilen: SANTA MARIA et al.: *Documentos para la historia del regionalismo en España*, IEAL, Madril, 1977). Transkribapen hauek guztiok ortografia gaurkotu dute. Guk jatorrizkoa darabilgu.

## 2. 1883KO NAFARROAKO ESKUALDE KONSTITUZIO PROIEKTU A

*pos y circunstancias en que esa Constitucion pueda plantearse, el desarrollo conveniente de los principios ahora consignados»* (43).

Oinarri konstituzional guztiak nafar errepublikarren Tuterako batzarrek berretsi arren (« *fueron aprobadas unánimemente y por aclamacion*» (44)), proiektua eta bere hitzaurrea osotara Serafin Olaveren lana izan zen. Olave, Seiurteko Demokratikoko diputatu beteranoa, idazle oparoa eta Nafarroaren ordezkaria 1883ko alderdi federalean, oso prestigio handiko pertsona behar zen izan Borbondarren Berrezartze garaiko nafar errepublikarren artean. Hala ere, bere proiektua alderdikideek inolako kritika, zuzenketa edo emendakinik aurkeztu gabe «*unánimemente y por aclamacion*» berretsi izanak, ez du jarduera oso demokratiko eta partehartzailerik erakusten alderdian. Bestalde, aipatu beharra dago 1869ko Eibarko Itun Federalean egon ziren nafar ordezkarietako bat bera ere ez dela agertzen Tuterako konstituzioa izenpetu zuten hirurogeita bi pertsonen artean (45). Olaverekin batera Nafarroatik 1873ko espainiar Gorteetan diputatu federal izandako Santos Landa eta Francisco Huder ere ez dira azaltzen.

Konstituzio proiektuaren edukiari gagozkiola, hamalau oinarrik osatzen dute (46). Edozein konstituziok azaldu behar duen funtsa proiektu honek ere jasotzen du: eskubideen deklarazioa eta botereen banaketa. Hala ere, eskubideen deklarazioa, ohi denaz bestera, testuaren hasieran barik amaieran agertzen da. Konstituzio hau Paredesen lanak zertxobait aztertu du (47). Guk analisi hori sakonduko dugu.

## 2. 2. Subiranotasuna, profesionaltasuna eta lurraldea

*Base 1.ª Origen del poder.*

*1.º Navarra, siguiendo su tradicion histórico-legal, conforme al primer libro de sus antiguos Fueros, y de acuerdo con el*

(43) OLAVE, *Constitucion futura...*, op. cit., 9. orr.

(44) OLAVE, *Constitucion futura...*, op. cit., 47. orr.

(45) Ikus Eibarko itun federala (in URQUIJO, op. cit., 347. orr.) eta Nafarroako Konstituzio proiektua (OLAVE, *Constitucion futura...*, op. cit., 47. orr.). Behar bada, Tuterako proiektua sinatu zutenen artean (birritan) agertzen den Eulogio Lasalak, zerikusirik izan dezake Eibarko Itunean aurkitzen dugun zortzi nafarretako batekin, Luis Maria Lasalarekin. Bestela, esan liteke bi ekintzen artean igaro diren hamalau urteetan Nafarroako errepublikar federalen ordezkatzeara erabatekoa izan dela. Lehen errepublikanismo eta Borbondar Berrezartze garaikoaren arteko jarraitasun falta bera seinalatu izan da Bilboko federalen kasuan (ikus FERNANDEZ SEBASTIAN, op. cit., 16. oharra, 21. orr.).

(46) Hauek dira oinarriak: 1. Boterearen jatorria; 2. Nafarroa eta nafarrak; 3. Botereen banaketa; 4. Botere adiskidetzaila; 5. Botere legislatiboa; 6. Botere judiziala; 7. Botere exekutiboa; 8. Udalerriak; 9. Indar publikoa; 10. Zor publikoa; 11. Irakaskuntza publikoa; 12. Ongintza; 13. Gizabanakoen eskubideak eta 14. Konstituzioaren erreforma.

(47) PAREDES, op. cit., 144-150. orr.

*ejemplo consignado en Constituciones modernas de Repúblicas libres y democráticas\*, se dará su Constitucion EN EL NOMBRE DE DIOS TODOPODEROSO.*

Aurreneko oinarri honetan gauza asko aurkitzen dira. Batetik, aurrerago landuko dugun erlijioaren auzia dago. Bestetik, boterearen jatorria Nafarroan dagoela adierazten da (berak emango dio konstituzioa bere buruari). Foruei buruzko aipu historizista ere hor dago. Azkenik, izartxoak oinohar bati leku ematen dio non Valais eta Friburg helveziar kantoien konstituzioak eta Suitzako konstituzio federala adibidetzat aipatzen diren. Aipamen hau Nafarroak segitu beharreko eredu gisa ulertu behar da. Izan ere, suitzar kantoiek, Antzinako Erregimeneko euren lurralde legislazioetatik abiatuz, konstituzionalki artikulatzea eta beren autonomia segurtatzea lortu zuten Estatu federalari esker. Suposa daiteke puntu honetan Nafarroarentzat ere bide bera seinalatzen dela.

Boterearen jatorria Nafarroa da. Bere autonomia ez datorkio indarrean dagoen botere zentralaren ematetik, aitzitik, «*siguiendo su tradición histórico-legal*», Nafarroatik bertatik sortzen da. Ideia hau argiago azaltzen da konstituzioaren hitzaurrean:

*Ante todo, hacemos constar que el derecho á la autonomía completa regional de Navarra, dentro de la comun nacionalidad española, arranca legal y legítimamente, del PACTO establecido al incorporarse á Castilla, quedando Navarra Estado de por sí; pácto que en nada ha perdido su validez legal por las violaciones del mismo consumadas en virtud de fuerza mayor; y que el derecho á su autonomía, por lo menos administrativa, fué nuevamente reconocido en el [pacto] de 1841, tambien más de una vez abusivamente conculcado por los Gobiernos centrales. Todo ello además del derecho natural al ejercicio de las autonomías que puedan invocar los otros pueblos de España y del mundo. (48)*

Hola Nafarroaren subiranotasun historikoaren kontzepziotik abiatuz (erabat federalismo foruzalearen ildoan) konstituzio proiektuaren eduki historizistaren arrazoia esplikatzen da:

*[...] el haber gozado ya, no solo de la autonomía á que las demás provincias aspiran, sino de gloriosa independencia; habiéndose regido Navarra por un cuerpo completo y secular de legislación foral universalmente venerado (aunque todo navarro imparcial comprende [que] necesita de las naturales reformas que reclaman, segun las épocas, todas las institucio-*

(48) OLAVE, *Constitucion futura...*, op. cit., 10. orr.

(49) OLAVE, *Constitucion futura...*, op. cit., 11. orr.



*nes humanas); tienen que imprimir á nuestra Constitucion un sello característico que la haga simpática, cuando no en todo aceptable, á la totalidad de los buenos navarros, si al formularla acertamos á inspirarnos en el espíritu genuino y verdadero de su antigua legislacion y de su tan noble como demostrativa historia.* (49)

Eta hola Nafarroako foru tradizioaren jarraitasuna segurtatzeko eta konstituzio proiektua nafar guztiei atsegina egiteko asmo bikoitzarekin, foruen lehen liburua aipatu da. Foruen lehen liburu horretan esaten denez, Nafarroan erregea herriaren onespenearekin ezarri eta hark estamentuen kontseiluarekin gobernatu behar zuen (50). Hori Olavek, Nafarroako subiranotasuna herriari dagokiola interpretatzen bide zuen eta horregatik dakar liburu hori gogora. Ondoren dator «*en el nombre Dios Todopoderoso*» esaldia. Aipu hau, ez zen ezinbestean izpiritu federalaren kontrakoa: garaiko beste konstituzio federal batzuek ere, testuan aipatzen den Suitzakoak, adibidez, antzeko formulak zekartzaten (51). Hala ere, konstituzio konfesional bat egiteko bidea ireki zezakeen, eta, izatez, horixe gertatzen da nafar proiektuan, lehen oinarriko bigarren puntuak berresten duenez: «*Respecto á relaciones entre la Religion y el Estado, Navarra se atendrá á lo expuesto en el preámbulo que precede á estas bases; adoptando como norma la prudente conducta, en la práctica, de la Iglesia Católica [...]*»

Konstituzioaren hitzaurreak batez ere gai honetaz dihardu, bere hogeita zortzi orrietatik hogeita lau eskainiz. Horrek Olaveren kezka nagusia auzi politiko-erlijiosoak zela erakusten du. Olavek, Nafarroako biztanleen erabateko gehiengoa katolikoa zela jabetuz —bera ere fededuna izateaz gain (52)— konstituzio konfesional bat errazago onartuko zela iritzi zion. Izan ere bere helburua ez zen minoria federalaren barne kontsumorako proiektu bat egitea, baizik eta nafar gehienek atxekiko zuten konstituzioa plazaratzea («*constituir la comun bandera para una gran mayoría de buenos navarros*»). Proiektua onartzeko orduan bere izate erlijiosoak izan zezakeen

(50) Ikus Nafarroako foru zaharren lehen liburuko lehen kapitulua (in Antonio CHAVIER: *Fueros del Reino de Navarra, Recuerdos del Reino de Navarra*, VI. bol., Amigos del Libro Vasco, Bilbo, 1985, 1. orr.)

(51) Suitzako 1874ko konstituzio federalaren aurreneko hitzak hauek ziren: «*Au nom de Dieu tout-puissant, la Confédération Suisse, voulant affermir l'alliance des Confédérés, maintenir et accroître, la force et l'honneur de la Nation suisse, a adopté la Constitution fédérale suivante[...]*» (Olaveren obra batean aipatua: *Reseña histórica...*, op. cit., 299. orr. Konstituzio suitzar haren testu osoa, Francisco PI Y MARGALLen obra federalista ezaguneko laugarren eranskinean ikus daiteke: «Constitucion de la República Federal Suiza», *Las nacionalidades*, Imprenta de Enrique Rubiños, Madril, 1882 [1. arg. 1876], 412-434. orr.). Aurrekari hurbil gisa —federala ez bazen ere— 1812ko Cadizko konstituzioa dugu, nafar proiektuaren ia hitz berekin hasten baita: «*En el nombre de Dios Todopoderoso, Padre, Hijo Y Espíritu Santo [...]*»

(52) Olaveren erlijiotasunaz ikus PAREDES, op. cit., 141-145. orr.

garrantziaren adierazgarri, Iturralde y Suit nafar foruzaleak 1882ko artikuluko batean zioenez, «*para que el federalismo pudiera ser un sistema viable seria necesario que renunciando á sus quiméricas teorías religiosas y sociales, se ajustara á la ley de Dios [...]»* (53). Gogora dezagun baita ere, mende erdi geroago, Nafarroa barne hartzen zuen beste autonomia proiektu batek, Lizarrako estatutuak, izpiritu konfesionaleko artikuluko bat gehitu zuela, era horretara atxikimendu handiagoa lortuz.

Tuterako konstituzioaren bigarren oinarria «*de Navarra y de los navarros»* izenekoa da. Batetik lurraldearen auzia dago. Printzipioz Estatu federala Nafarroa Garaiak bere une hartako mugekin osatuko zuten. Baina beste lurralde batzuk onartzeko aukera ere agertzen zen:

*[Navarra] está dispuesta á admitir la libre reincorporacion de los territorios de Rioja, Vascongadas y sexta Merindad de Ultrapuertos (hoy francesa), que antes fueron navarros, considerando ya que, en algunos de ellos, existe la patriótica tendencia á tan fraternal y conveniente union, cuando las circunstancias lo permitan.* (54)

«*Patriótica tendencia»* horrekin une hartan lau foru probintzien artean zegoen elkartasunari erreferentzia egin bide dio, garaiko *Union Vasco-Navarra* leloa aski erakusgarri izaki. Olavek berak, garai hartan «*tierra vasco-navarra»* bezalako esamoldeak zerabiltzan, lehenagoko ikuspegi hertsiki nafarretik aldentuz nolabait (55). Horrela, hein batean, Eibarko 1869ko ituneko «laurak-bat» izpiritua berreskuratzen zen (56). Horrek baina, ez zuen konstituzio proiektuan Nafarroaren zentraltasunaren perspektiba murrizten ikuspegi euskaltzale baten faboretan: ez zen euskal herrialdeen batasuna planteatzen; abiapuntua Nafarroak bere lurralde historikoak berreskuratzeko zeukan eskubi-dea zen, eta ez soilik beste hiru euskal probintziak, baita Errioxa eta

(53) Ikus «Los fueros y el federalismo», *LAU-BURU. Diario de Pamplona*, Iruñea. 1882.03.01/04. Artikuluak, dena dela, ez dauka eduki sakonegirik. Foruzaletasuna, goratu egiten da jatorrian eta helburuan katolizismoa duela argudiatuz, eta federalismoa, aldiz, gaitzetsi, iraultzaren, arrazionalismoaren eta izpiritu antierlijiosoaren seme ei delako.

(54) OLAVE, *Constitucion futura...*, op. cit., 38. orr.

(55) Hola 1882an bizkaitar federalen *Euskaldun-Leguia* errepublikar astekaria argitaratzen hasi zenean, Olavek, nafar alderdikideen partez artikuluko bat argitaratu zuen zori onak emanez. Artikulu horretan erabili zuen aipatu dugun esamoldea, geroagoko idazkietan errepikatuz. *Ikus Euskaldun-Leguia. Semanario Republicano Democrático Federal*, Bilbo, 1882.06.25.

(56) Olaveren bilakaeraren erakusgarri dira *Euskaldun-Leguia* aldizkarian 1882an argitaratu zituen artikulua, batez ere «Fueristas, euskaros, federales. Tres palabras para una idea» (1882.08.13/20/27 eta 1882.09.04 egunetan). Hitzatzean honetaz zertxobait gehiago esango dugu.

Nafarroa Beherea ere (baina ezer ez da esaten Iparraldeko beste bi euskal herrialdeez) (57).

Lurraldearen definizioaren ostean bertako biztanleen gaia jorratzen da. Herritartasun eskubidea orokorra da Nafarroan jaino direnentzat, eta aita edo ama nafarra dutenentzat ere. Atzerritarrek nafar herritartasuna eskuratzeko lau urtez auzotar behar dute izan eta espainiarrek bi urtez. Beraz herritartasun eskubidetan espainiar konstituzioen antzekoa da, eskuzabalagoa agian atzerritarrei dagokionez. Nafar ez diren espainiarrei herritar bihurtzeko eskatzen zaien bi urteko paramenean, aldiz, bereiztu egiten da. Honetan 1873ko proiektu federaletik ere aldutzen da, ze horren arabera, edozein Estatu federaletako herritarrei eskubide guztiak ezagutu behar zitzaizkien gainerako Estatu federaletan, inolako denborazko baldintzarik aipatu gabe (103. art.). Baina Tuterako konstituzioak eskaturiko bi edo lau urte horiek, Antzinako Erregimeneko foruek atzerritarrei nafar herritartasuna lortzeko ezartzen zizkieten zailtasun izugarriekin alderatzen baditugu (58), Olaveren proiektua erabat liberala agertzen zaigu. Arabar, bizkaitar, gipuzkoar, errioxar eta baxenafarren kasuan, nafar herritartasuna eskuratzeko gehiago ere errazten da. Gainera Nafarroan ezarri beharrik gabe. Aski lukete euren lurraldeetan biziz (gutxienez urte t'erdiz) nafar herritartasuna eskatzea. Izan ere hola *«pueden prestar gran servicio á la propaganda de la idea anexionista»* (59).

### 2. 3. Botereak

Hirugarren oinarrian botereen banaketa azaltzen da: adiskidetzaila (*«conciliador»*), legislatiboa, judiziala eta exekutiboa (ikus diagrama). Botere adiskidetzaila (4. oinarria) behin-behineko kasuetan era-

(57) Lurraldeon nafartasunaren aurreneko aipamena Olaverengan, 1875eko testu batean aurkitu dugu: *«Este reino [Navarra] comprendia, en tiempos de Don Sancho IV, las tres provincias Vascongadas y Nájera con toda la Rioja [...] por consiguiente, los habitantes de los indicados territorios, aunque hoy se llamen castellanos, son en realidad navarros; su carácter, costumbres y aspecto, su raza, en una palabra, es la misma.»* (OLAVE, *Reseña histórica...*, op. cit., 25. orr.). Hiru urte geroago, Errioxa Nafarroara berrelkartzeko aukeraz mintzo zen (*El bu del socialismo...*, op. cit., 47-51. orr.). Hurrengo hamarkadan ere ideia bera zerabilen buruan, (ikus «El banquete federal», *Euskaldun-Legua*, 1882.09.18). Espainiar errepublika federalean, Calahorra Nafarroara elkartu zitekeela eta hiriak bere foru zaharra berreskuratuko zukeela esaten zuen. Hortik ondoriozta dezakegu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak ere, Konstituzio proiektuak nahi zuen bezala Nafarroara lotuko balira, euren foruak berreskuratuko eta gordeko zituzketela.

(58) Herritartasuna lortzeko zegoen zailtasunaz ikus foruen bilketa berrian lehen liburu XVIII titulua (in Joaquín ELIZONDO: *Leyes del Reyno de Navarra, Recuerdos del Reino de Navarra*, V. bol., II. parte, Amigos del Libro Vasco, Bilbo, 1985, 421-476 orr.).

(59) Hurrengo puntuan, pribilegio hau hobeto funtsatzeko, Nafarroa Garaia Gaztelak konkistatu ostean baxenafarrek Nafarroa Garaian beren eskubideak mantendu zituztela gogorarazten da, eta, hortaz, konstituzio proiektu honek eskubide hori errioxar, arabar, bizkaitar eta gipuzkoarrei ere zabaldu baino ez zuela egiten.

tuko litzateke, gainerako hiru botereen arteko gatazkak konpontzeko, ondoren disolbatuz. Nafarroako botere adiskidetzalea gainerako hiru botereetako kide banak osatuko zukeen. Ohiko banaketa hirukoitzetik kanpoko botere honek bazeukan parekorik XIX. mendeko zenbait konstituziotan. Adibidez Espainiako 1873ko proiektu federalean «poder de relación» izeneko laugarren botere bat zegoen, funtzio desberdinak zituen arren.

Botere legislatiboa (5. oinarria) Nafarroako Gorteei zegokiekeen. Nafarroako erakunde legislatibo zaharraren izena berreskuratzen zen, baina era berrian antolatzen, ez hiru beso estamentaletan, baizik bi ganabaratan banatuz: Senatua eta Kongresua. Ganbara legegile biek lege ekimena edukiko zuketean, aurrekontuen aurkezpenean izan ezik, aurrenik Kongresuak aurkeztu beharko zituzkeen eta. Legeak promulgatzeko Senatuaren eta Kongresuaren berrespina beharko zen. Ganbara hauen jarduera 1869ko espainiar konstituzioan agertzen zenaren antzekoa da, parlamentarien hautapen sistema desberdina bada ere. Nafar proiektuak Gorteei ahalmen legegileaz gain bestelako zeregin gehigarriak ezagutzen dizkie (ikus diagrama). Aipatu beharreko ezaugarria da senatore zein prokuradorei beren hautes barrutiek aginduzko mandatuak ezar diezazkieketela, kontu eskatu, eta are kargua ken ziezaieketela (5.9. eta 5.10. art.).

Legegintzaldien arteko aldietan Nafarroako Diputazio Iraunkorrak funtzionatuko zukeen (5.19. eta 5.20. art.). Gorteen menpeko organoa zatekeen, senatorez eta Kongresuko prokuradorez osatua. Diputazio honek Nafarroako erresuman ustez zegokion jatorrizko zeregina berreskuratuko zukeen (60): botere guztiek foruak errespetatzen zituzten zaintzea; foruen kontra zapalduetako nafarrei laguntzea; Gorteak deitzea (martxoaren hasieran ezik, deitu beharrik gabe bilduko baitziren); eta legigintzaldi hasieran foruen arabeko bidegabekeriaren berri Gorteei ematea. Foruen begiratze arloan, Diputazioaren eginkizuna sindikoek zutenaren antzekoa da. Baina erakunde bezala Cadizko konstituzioan agertzen zen «*Diputación Permanente de Cortes*» delakoaren pare-parekoa da, funtzioak ere oso antzekoak izaki (61).

Nafarroako konstituzio proiektuaren azken bitxikeria botere legislativoari dagokionez, Antzinako Erregimenean bezala Gorte higikorrek proposatzea da. Senatua eta Kongresua Iruñean edo beste hiri batean

(60) Nafarroako Diputazioaren eskumen zaharrak aipatzen badira ere, egia esan, Antzinako Erregimenean erakunde haren zereginak ez zeuden argiro definiturik. Gorteen organo laguntzaileetako bat zen, eta jada XVI mendean bere funtzioetako bat foruen betetzea begiratzea zen. Baina bere zeregina finkoa izan barik, aldatuz joan zen denboran zehar, XIX menderako botere exekutibo gisako bat izaki. Ikus LACARRA, José María: «Estructura político-administrativa de Navarra antes de la Ley Paccionada», *Príncipe de Viana*, 92-93 znb., Iruñea, 1963, 245. orr.

(61) Ikus *Constitucion Política de la Monarquía Española*, Cadiz, 1812, X. kap., 157-160. art. (in GONZALEZ-DORIA, op. cit., 310. orr.).

finkatu barik, legegintzaldi bakoitzean hiri batetik bestera mugituko ziratekeen (5.21. art.).

Botere judiziala (6. oinarria) Nafarroako Auzitegi Gorenaren esku zegokeen. Auzitegiko kideak hautetsiak ziratekeen, hautagaiak lanean hamar urtez edo gehiagoz ziharduten berrogei urtetik gorako nafar abokatuak izaki. Behin hautatu eta gero, behezagoko kargu judizialak euren ardurapean izendatuko ziratekeen, beti ere oposizio publikoen bidez.

Botere exekutiboa (7. oinarria) zazpi kide hautetsik osaturiko Kontseiluaren eskumena zatekeen. Exekutiboaren kide kopurua bat dator Nafarroako Diputazioak 1841eko konponketaz geroztik zuenarekin. Nafar kontseiluaren eredia Espainiako 1873ko konstituzio proiektua ere izan zitekeen, han ere presidente batek zuzenduriko ministro kontseilua azaltzen baitzen. Halaber Suitzako konstituzio federalean, zazpi kideko kontseilu federala zegoen eta presidentea, Olaveren proiektuan bezala urtero aldatzen zuten. Nafar Kontseiluaren zereginak edozein botere exekutiboren ohikoak ziren. Gainera legegintzaldi bakoitzaren hasieran Kontseiluak Gorteei bere kudeaketaren berri eman beharko ziokeen (suitsar kontseiluak bezalaxe) (62).


Ikusi dugunez, botere legislatibo, judizial eta exekutiboko kideak hautatuak ziratekeen. Baina ez dugu azaldu konstituzioak proposatzen zuen hautaketa metodo kuriosoa zein zen. Bozketak «zakuratze» edo «insakulazioan» oinarrituriko zeharkako sufragio unibertsalaz egingo ziren: nafar (gizonezko) herritar guztiak hautesle potentzialak ziratekeen (63); baina bozketa bakoitzean soilik zortez izendatuek hartuko zuketzen parte; eta bozkatu aurretik inkomunikatu egingo zituzketen. Sistema hori proposatzearen arrazoa, botuen erosketa ekiditea zen. Izan ere, konstituzio proiektuan bertan salatzen zenez, garaian ohiko zen «ardoen lurrunen eta jataldien» bidez (gizonezkoen) zuzeneko sufragioa azpijokoz baliatzea (64). Olaveren garaikideen artean antzeko ideiak aurki ditzakegu. Hola Julian Arrese federalak, Arabako foru eta erakundeei buruz 1873an argitaraturiko obran, gisa bereko kezka agertu zituen hauteskunde zuzenei buruz eta berak ere zakuratzearen

(62) Suitzako 1874ko konstituziorako ikus PI Y MARGALL, op. cit. 428-430. orr.

(63) Garai hartan bozkatzeko eskubidea gizonezkoei baino ez zitzaien ezagutzen. Alta, badirudi Serafin Olave ez zegoela emakumeek eskubide hori izatearen kontra: Tuterako konstituzioaren hitzaurrean, Nafarroa foral idealizatu baten irudia ematen du (berak eredutzat daukana) honakoa adieraziz: «*El sufragio universal, [fue] ejercitado alguna vez en Navarra, en las Córtes de Huarte-Araquil, hasta por las mujeres (novísima aspiración en los Estados-Unidos).*» (letra jasoak gureak).

(64) Une hartako bozketa sistema sufragio zuzeneko zen, baina ez unibertsala baizik zentzutariora. Hortaz Olavek proposatzen zuena baino askoz mugatuagoa. 1891an ireki zitzaizen Espainiako gizonezko guztiei bozkatzeko eskubidea, haatik hauteskunderetako ustelkeria konpondu gabe, ustelkeria ez baitzen sistemaren disfuntzio bat baizik bere oinarrietako bat.

1883KO NAFARROAKO ESKUALDE KONSTITUZIO PROIEKTUKO BOTEREN DIAGRAMA



konponbidea proposatzen zuen (65). Baliteke bi autoreon arteko antzekotasuna menturazkoa ez izatea, Olavek Arreseren lanaren berri izan zezakeen eta. Konstituzio proiektuan, Nafarroako zenbait erakunderen barne jarduera zuzentzeko ere zortzeko mekanismoak proposatzen ziren (Senatua herenka ordezkatzeko, berritu beharreko kontseilarien erdia zein zen erabakitzeko, e. a.). Hau guztia zortekak gizakiek baino hobeto aukeratzen zuela zeritzon XIX. mendeko ideia ezkorren agerkari izan liteke (66).

#### 2. 4. Udalerriak, auzi publikoak eta eskubideak

Zortzigarren oinarriak udalerriez dihardu. «*Los pueblos y agrupaciones de caseríos harán libremente sus Constituciones municipales, y podrán confederarse varias poblaciones, constituyendo Merindades, con sus Juntas.*» (67) Udal konstituzionalismoa eta konfederazio askeen ideia estuki loturik dago kantonalistek 1873an agertzen zuten federalismo erradikalarekin. Olave, jakin beharrekoa da, aro iraultzailearen azken aldi hartan tesi kantonalisten aldekoa zen. Artikulu honek bada, federalismo erradikal haren oihartzunak agertzen ditu. Bestalde, udal hauteskundeak, ohi denez, zakuratzearekin konbinaturiko sufragio unibertsalez egingo ziratekeen.

Indar publikoaz esaten dena (9. oinarria) foru probintzietako soldadutzarik ezaren tradizioarekin bat dator: «*Ningun navarro podrá ser llamado al Ejército activo [...] en tiempo de paz.*» Gogoratu beharra dago, Olave politikan sartu aurretik espainiar armadako militar profesionala izan zela. Kontxintxina, Kuba eta azken gerrate karlistako beteranoa izanik, koronel gradua eskuratu zuen, baina hala ere kinten aurkakoa izan zen beti (68). Zelangura delarik ere, gerra zegoenerako

(65) Hauek dira Arreseren hitzak: «*El nombramiento de primeros magistrados no debe hacerse por plebiscito, porque ganarian la eleccion, despues de inmunda lucha, los hombres más ambiciosos, los más influyentes, los más corruptores, los más indignos del poder: la eleccion por el pueblo en masa, conmovieria extraordinariamente el país, produciendo quizá la guerra civil.*» Hortaz «*democracia y el gobierno del pueblo por el pueblo*» errebindikatzen zuen Arrese berberaren iritzi, «*El sistema directo puede producir, en beneficio de los ambiciosos, mayorías seducidas por medio de reuniones, cabildos, intrigas y farsas indignas.*» Kontrara, konponbidea zakuratze sistemak eskainiko luke: «*[la] insaculacion bendita que ha producido, en cuantos países se ha practicado, resultados maravillosos. [...] Este secular sistema, tan sencillo en su aplicacion como fecundo en beneficios, evita toda clase de influencias corruptoras, dando á los electores, hasta donde es posible en lo humano, garantías de independencia y acierto.*» Eta, hain zuzen, Nafarroa erresuma independentea aipatzen du eredutzat. Ikus ARRESE, op. cit., 159-165. orr. Zakuratze sistema Nafarroako foruen errekopilazio berriari azaltzen da (ikus lehen liburua, XIII. tit. «*Inseculaciones*» in ELIZONDO, op. cit., 597-647 orr.)

(66) Ideia horren berri José María Portillo irakasleak eman digu. Hemendik, ohar hori eta lan honi egin dizkion beste batzuk eskertu nahi dizkiogu.

(67) OLAVE, Constitucion futura..., op. cit., 44. orr.

(68) Oraindik armadan zegoenean honako liburua idatzi zuen: OLAVE, Serafin: *Bases para la reorganizacion del ejercito español partiendo del supuesto de abolicion de las quintas*, Madril, 1871.

zehaztu gabeko prestaketa militarren bat egin beharko zela onartzen zuen. Bestalde Nafarroan ordenua mantentzeko indar publikoa sortuko zen.

Ondoren zor publikoaz dihardu konstituzio proiektuak, ordurarte nafar erakundeek pilatutako zorra Estatu federalaren ardura litzatekeela adieraziz.

Hezkuntza osoan (11. oinarria) emakumezkoei gizonezkoen eskubide berberak ezagutzen zaizkie. Lehen mailako hezkuntza, publikoa, unizipala eta derrigorrezkoa izango zela adierazten da. Horretan Tuterako proiektua 1873ko konstituzio federalarekin bat dator (108. art.). Goi mailako hezkuntza publikoa, Iruñean sortu beharreko unibertsitatean kokatuko zatekeen. Honetan ere, badago 1873ko konstituzio federalaren antzik, Estatu federaleari unibertsitateak sortzeko eskubidea ezagutzen zitzaien eta (98. art.). Olaveren proiektuak lantzen duen beste gizarte auzi bat ongintza eta sorospen elkarteetan sustapen publikoa da (11. eta 12. oinarriak), hortik Nafarroako alargun, umezurtz eta elbarri guztiek laguntza jaso zezaten. Hortaz 1873ko proiektuak (96 art.) Estatu federaleari esleitzen zizkien eskumen sozialerako bi —irakaskuntza eta ongintza— Nafarroako konstituzio proiektuak bere egin eta garatu egiten zituen.

Azken oinarria konstituzioaren erreformaz ari da. Aurretik, hamahirugarren oinarrian gizabanakoaren eskubideen adierazpena aurkitzen dugu. Bertan esaten denez: «*Los antiguos derechos forales de petición, reunion, asociacion, manifestacion, inviolabilidad de domicilio, y juicio legal ante Tribunales competentes, se ejercerán libremente*» (69). Adierazpen horrek gizabanakoaren eskubideetarik nabarmenetako batzuk jaso arren, edozein konstituzio liberaletan agertu ohi ziren beste batzuk falta ditu: jabe go pribatua edukitzeko eskubidea, legearen aurreko berdintasun eskubidea, bozkatzeko eskubidea, e. a. Dударik gabe jakintzat ematen dira. Foruek ezagututako zenbait eskubideren eta liberalek aldarrikatutako artean zegoen antza azpimarratzeko nahiak, soilik horiek aipatzera bultzatu bide zuen Olave. Aurrerago adierazpen askatasun eskubidea ere berresten da. Baina eskubide hau mugaturik dago: Nafarroak kaltegarri deritzon argitalpenen sarrera galarazteko eskubidea gordetzen du, eta moral eta ohi-tura onen aurkako testu edo idazkiak argitaratzea galarazten (70). Halaber, aurretik aipatu ditugun eskubide guztien deklarazioaren ostean «*con sujecion á las leyes que castigarán su abuso ó empleo*

(69) OLAVE, *Constitucion futura...*, op. cit., 46. orr. Nafarroako foruek gizabanakoaren eskubideak jasotzen zituztela frogatzeko *Novisima Recopilacion*-eko lehen liburuko, 8. tituluko, 11. legea eta hurrengoak aipatu ohi ziren, baita bigarren liburuko, 1. tituluko, 1. legea ere (ikus ELIZONDO, op. cit., 441-444 orr.).

(70) Olavek adierazpen askatasun mugatua ezagutzeko erudia, horren gogoko zuen Suitzako konstituzio federalean aurki zezakeen. Han esaten zenez: «*Art. 55. La prensa es libre. Las leyes cantonales establecen, sin embargo, las medidas necesarias para la repression de los abusos.*» (Testu itzuli hau PI Y MARGALLen eranskinetik hartu dugu, op. cit., 423. orr.).



*para fines criminales» mugapena egiten da.* Urrun geratzen da — Olavek haren idazketan parte hartu arren— 1873ko espainiar konstituzio federal iraultzaileko eskubideen adierazpena, nafar proiektutik. Arlo honetan nolabaiteko kontserbadurismoa hautematen dugu Tuterako konstituzioan. Eta kontserbadurismo hori ez da ezezaguna nafar proiektuko beste puntu batzuetan ere. Hortaz, testuan zehar elementu erabat aurrerakoiak, bestelako elementu kontserbadoreagoekin nahasten dira.

## 2. 5. Proiektuaren burutzapena

Laburbilduz Tuterako konstituzio proiektuak, ikuspegi federalez, eskualde eta udalerraren autonomia segurtatu, funtsezko eskubideak bermatu eta herritarra urgaziko zuen. Botereei dagokionez, ildo liberaleko konstituzioa genuke: botereen arteko bereizketa, independentzia eta elkar zaintza berresten zituen. Parlamentarien askatasuna bermatzeko, karguok ordainduak izango ziren, eta beren iritzi eta botuei dagokienez, bortxaezintasuna onartuko zitzairen. Aldi berean karguei kontrol neurri zorrotzak ezartzen zizkien botere abusua ekiditeko: bateraezintasunak, berehalako berraukeraketarik ezin egina, erantzule izatea, karguen kengarritasuna, e. a. (71). Konstituzio honen beste berezitasun bat zorte faktorea darabilen hautatze sistema da. Sistema honen jatorria eta testuak jasotzen dituen kargu eta erakunde ugariaren izenen jatorria ere, historikoak eta Nafarroakoak dira. Izan ere, konstituzio proiektu honen ezaugarrietako bat bere historizismoa eta nafar tradizioan errotzeko asmoa zen. Hala ere, erakunde horiek ez ziren jatorrizkoen jarraitzaile zuzenak, lehengo zeregina neurri handiz aldatzen zuten berraketak baino (72).

Jarraitasun historiko horretan, proiektuaren arlorik garrantzitsuenak, seguru asko, foralitatearekin bateragarria izateko asmoa zen. Paredesek dioenez, proiektua Zaragozako batzar federalean «*constitucion fuerista*» izenarekin aurkeztu zen (73). Proiektuari datzekion foruzaletasuna, testuan zehar dauden aipamen nominal eta erretorikotetan baino gehiago, erakunde bati —Diputazioari— esplizituki foruen errespetua begiratzeko ardura ezartzean berresten da. Hala ere, kodei buruzko artikuluren bat egotea espero zitekeen, foruak zuzenbide

(71) Ezaugarri hauek federal foruzaleek aipatu ohi zituzten, kargu foralek propio zituzten baldintza bertutetsu gisa. Hala, nafar konstituzio proiektuak bere kargu hautetsiei ezartzen dizkien kontrol neurrien antzekoak dakartza Arabari buruz ARRESEK, op. cit., 192-251. orr., eta Gipuzkoari buruz JAMAREK, op. cit., 29-39, 35-37, 45-48. orr.

(72) Antzinako Erregimeneko nafar erakundeez ikus: HUICI GOÑI, María Puy, *Las Cortes de Navarra durante la Edad Moderna*, Madril, 1963; LACARRA, José María, op. cit., 231-248. orr.; LOPEZ ATXURRA, Rafael, «Las instituciones del sistema foral», AGIRREAZKUENAGA, Joseba (zuz.), *Gran Atlas Histórico de Euskal Herria. Nosotros los Vascos*, Lur, Donostia, 1995, 129-144. orr.

(73) PAREDES, op. cit., 136. orr.

zibil gisa aipatuko zituena. Ez agertzean, jakintzat hartzen zela ulertu beharko da. Pentsa dezagun espainiar konstituzioetan ere, kode zibila ez zela zehazten, gero praktikan kode tradizionalak aplikatzen baziren ere. Hola bada, Nafarroako konstituzio federal hau, orduraino maila teorikoan egondako ideologia federal foruzalearen gauzatze konkretu bat izan zen.

Konstituzio honek baina, ez zuen amaiera onik izan. Zaragozako batzar federalean aurkeztu zen 1883ko ekainaren 2an. Paredesek dioenetik, lehen oinarrian bertan agertzen den erlijiotasunak eskandalua eragin zuen bildutakoaren artean (74). Gainera Olavek salaketa misterioso bat egin zuen bilkuraren kontra, triangelu eran lerrokaturik zegoela eta, masoia zela esanez (75). Pi y Margallek hitza kendu zion eta Olavek batzarretik alde egin eta alderdi federala utzi zuen. Bi buruzagi federalisten arteko eztabaida eta hausturaren atzean, bakoitzak federalismoaz zeukan ikuspegi desberdina zegoen. Federalismo iraultzailearen eta federalismo foruzalearen abiapuntu kontrajarriak -zeuden hor. Bata, gizabanakoaren subiranotasunetik abiatzen zen. Subiranotasun hori zirkulu kontzentrikotan zabalduz zihoan, pertsonagandik udalerrira, probintziara, lurraldera eta azkenik Estatura helduz. Ikuspegi foruzalean berriz, lurraldeen subiranotasunak, historian eta tradizioan zuen jatorria. Eta federalismo iraultzaileak ezin onar ezazakeen tradizio horren zati bat, erlijiosoa izan zen, nafar proiektuak esplizituki berresten zuena alegia.

Kontraesan teoriko hori gora-behera, arazoa erraz konpon zitekeen maila praktikoan, nahiz eta autoreren batzuk gaindigaitza zela esan (76). Estatu federal asko (gehienak edo guztiak ez esatearren) beren lurralde historikoetatik abiatuz sortu ziren, eta ez gizabanakoengandik abiaturiko *ex novo* jaiotzetik. Federalismo foruzalea ongi zegokion Suitza adibide duen federalismo praktiko horri. Hala ere, guztiz ulergarria da Nafarroako konstituzio proiektua, errepublika federal batean arazorik gabe aplika zitekeen arren, federal iraultzaileenek gustuko ez izatea. Eta hola nafar proiektua bertan behera geratu zen. Baina Zaragozako batzar federalean gainerako eskualdeek aurkezturiko proiektu doktrinalki garbiagoek, ez zuten zorte hoberik ezagutu.

(74) PAREDES, op. cit., 141, 144-145. orr.

(75) PAREDESEK ez du gertakari hau aipatzen. Baina nahiko iskanbila handia eragin bide zuen, egunkari askok federalak salatzeako baliatu zuten eta. Eraso horiei erantzuten zieten Bizkaiko federalen egunkariak (ikus *Euskaldun-Leguia*, «No hay peor sordo...», 1883.07.01; «Recopilación» eta «Se lució el Sr. Olave» 1883.07.08).

(76) Kontraesan hori azpimarratzen du Javier FERNANDEZ SEBASTIANEK (op. cit., 24. orr.). Baina jakin beharrekoa da federalismo tradizionalista ez zela soilik euskal foruzaleen ezaugarria. Katalan federaletan ere –euren artean Pi y Margall egonik– teoria federal iraultzaileak landuagatik, Aragoiko Koroaren federalismo historikoa errebindikatzen zuten. Eta esan beharrik ez dago, Erdi Aroko federalismo hori ez zela foru probintziara baino egiazkoagoa izan. (Katalan federaletaz ikus PIQUERAS, José A., «Detrás de la política. República y federación en el proceso revolucionario español», CHUST, Manuel-PIQUERAS, José A. (komp.), *Republicanos y repúblicas en España, Siglo XXI de España*, Madril, 1996, 5. orr. eta hurrengoak.)

### 3. HITZATZEA: FEDERALAK ET A EUSKAROAK

Olaveren ikuspegi tradizionalista federalismo jatorragora egokitzea zaila zen bezala, mugimendu honek aukera gutxi zituen Euskal Herrian eta zehazki garai hartako Nafarroa bezalako herrialde kontserbadorean finkatzeko. Olaveren eta beste federal foruzale batzuen proiektuak moderatuak baziren ere, federalen jatorri iraultzailea agerikoa zen. Doktrina federalaren demokratismo, errepublikanismo eta laikotasunak mugimendu arrotza bihurtzen zuen XIX. mende bukarako nafar eta oro har euskal herritar gehienentzat. Errepublikak federalak, dudarik gabe, foru erregimen desberdinen iraupena bermatuko zuen neurri handiz espainiar esparru konstituzionalaren baitan. Neurri handiz diogu eta ez erabat, konstituzio federalek ere Antzinako Erregimeneko foralitateen zenbait arlori kalte egin ahal ziotelako, 1873ko proiektuarekin gertatu zen bezala (77). Hala ere, askoz kalte txikiagoa konstituzio zentralistek baino. Eta gainera, teorikoki doktrina federalaren guztiz posible zen errepublika osatuko zuten lurraldeen ordenamendua osotara errespetatuko zukeen konstituzioa egitea. Pi y Margallek zioenez, «*por derecho propio recobrarian vascos y navarros bajo nuestro sistema sus codiciados fueros, y no correrían ya, como hasta aquí corrieron, el peligro de perderlos. [...]*». Izan ere:

*[En el federalismo] las provincias [son] tan autónomas como la nación misma, y pueden para su régimen interior, darse la constitución y las leyes que crean más acomodadas á su especial índole y á sus particulares intereses. Pueden, si quieren, restablecer sus perdidos fueros, pueden, si quieren, enmendarlos, pueden, si quieren, substituirlos por instituciones que respondan mejor á las necesidades de los tiempos. A ellas y sólo á ellas incumbe organizar, como les parezca, su gobierno, su administración, su hacienda, sus leyes, sus tribunales y su fuerza pública. (78)*

Baina Estatu federalaren ezarpena, azken finean Espainia mailako arrakastaren menpe zegoen. Eta holakorik ez zen gertatu.

Espainiako federalismoaren porrotak katalanismo politikoaren sorrera erraztu zuela esan da (79). Euskal Herrian ez zen antzekorik gertatu. Hemen federalismoak indar eskasa izan zuen eta nekez esan liteke mugimendu hau euskal nazionalismoaren sustrai ideologikoen artean aurkitzen denik. Baina, zeharka bederen izan zuen nolabaiteko

(77) Ikus 30-31 oharra.

(78) *Euskaldun-Legua*. 1882.06.06.

(79) Kataluniak bere autogobernu gurariak Espainia osoa deszentralizatuz lortu nahi izan zituen, eta eredu horrek porrot egitean, deszentralizazio partikular eta espezifikoa eskatzeko bidea ireki zuen. Hala Borbondarren Berrezartzea gertatu ondoren, katalan federalismoaren kide garrantzitsuek, Valentí Almiralrek gidaturik, Kataluniarentzako autonomia berezia eskatzeko hautua egin zuten. Hori bai, ikuspegi aurrerakoi eta errepublikarra mantendu zuten.

eragina. Olavek, nafar konstituzioaren hitzaurrerako idatzi zuen ondoko paragrafoa adierazgarria da:

*Conste, para siempre, que siendo los derechos especiales y positivos de Navarra al goce de su autonomía regional, ó sea de sus Fueros, anteriores á los que puedan declararse por la República democrática federal, Navarra debe aspirar al planteamiento de la presente Constitución regional, en su totalidad, ó en aquella parte que sea posible, con todo género de Gobiernos centrales; antes de que la República rija en España, y después de la desaparición de dicho sistema si, una vez planteado, no llegára á consolidarse en la Nación. (80)*

Olavek Nafarroako foralitatea gauzatzeko proposatzen zuen eskualde konstituzio moduaz abstrakzio eginik; har dezagun orain, Estatu federalak arrakastarik eduki ezean foru autonomiaren errebindikazioa mantendu egingo zela dioen ideia. Ideia hori argigarria gertatzen da 1873ko proiektu federalaren porrotari aplikatzen badiogu: errepublika federala ez gauzatzek foru autogobernuaren guraria konpondu gabe utzi zuen, eta desio hori, 1876ko abolizioak indarturik, berragertu egin zen. Baina jadanik ez zen lehenagoko foruzaletasunaren itxurapean agertuko. Eraldatu eta bere agerkarietako bat mugimendu aurrenazionalista berriak izango ziren. *A posteriori* ikus dezakegu Olavek goiko paragrafoa idatzi zuenean (1883an), igaroa zela federalismoa ezartzeko izan zen aukera. Eta bitartean mugimendu foruzale berriek hasia zuten beren ibilbidea. Olave ere, bere bizitzako azkenaldi hartan, aurrenazionalismoak eragingo zuen. 1878an Nafarroako *Asociacion Euskara*-ko ohorezko kide izendatu zuten. Eta inoiz esan denaz bestera, Olavek ez zuen bere burua elkarte horren jardunetik kanpo kokatu (81). Aitzitik behin baino gehiagotan saiatu zen euskaroak lerro federaletara erakartzen, euren foruzaletasun apolitikoa alde batera utz zezaten lortu gabe. 1882ko artikulua luze baten titulua aski esanguratsua zen: «*Fueristas, Euskaros, Federales ¡Tres palabras para una idea!*!». Artikulu horretan, foruak errepublika federal batean baino ezin berrezar zitezkeela defendatzen zuen, eta hortaz euskaro guztiei helburu hori lortzeko dei egiten zien (82). Olave foruak onartzen zituen federalista baino gehiago, foruzale aurrerakoia zen, eta federalismoaren alde egiten zuen foruak segurtatzeko modurik onena

(80) OLAVE, *Constitución futura* ..., op. cit., 10. orr.

(81) Iritzi oker hori agertzen du adibidez PAREDESEk, op. cit., 141. orr.

(82) Ikus «*Fueristas, euskaros, federales ¡Tres palabras para una idea!*», *Euskaldun-Leguía*, 1882.08.13/20/27, 1883.09.04.

zelakoan (83). Eskema hori argiro agertu zuen alderdi federala utzi ondoren. Aurrerantzean katolizismoa eta foruak baino ez zituela defendatuko aldarrikatu zuen (84). Antzeko berbak erabili zituen Arturo Campionek. Gaztetan militante errepublikarra izanik, «*desde la terminación de la guerra soy católico y fuerista a secas*» adierazi zuen (85). Olave bezala Campion ere Asociacion Euskara-ko kidea zen. Olavek, saiatu arren, ez zuen euskaroen artean itzalik lortu; Campionek bai, eta errepublikanismoaren arlorik aurrerakoienak baztertu bazituen, Estatu federalaren ideia gorde zuen, foruak Espainian mantentzeko egiturarik egokiena iritziz (86).

Nafar federalismoak euskal aurrenazonalismoari egindako ekarria inola ere ezin aldera daiteke federalismo katalanak katalanismoan izan zuen eraginarekin. Baina 1873ko errepublika federalaren porrotak eta ondoren Borbondarren Berrezartzearekin erregimen zentralista finkatzeak, foruen auzia konpondu gabe utzi zuten eta foruen defentsarako talde berrien sorrera ahalbidetu. Era berean nafar federalismoaren ideologia nazionalismora bideratu ez zen arren, «konbertsio» bakan batzuk eragin zituen (87).

## 4. BIBLIOGRAFIA

### 4. 1. Lehen eskuko iturriak

*ACTA DE LA EXCMA. DIPUTACION DE NAVARRA RELATIVA AL ESTADO FEDERAL*, Imprenta Provincial á cargo de V. Cantera, Iruñea, 1873 (FSS)

(83) Konstituzio proiektuaren hitzaurrean ondokoa zioen: «*Navarra reivindicará, lo positivo de su derecho a darse Constitucion, y á mejorarla [...] sea cual fuere la forma de Gobierno central que rija en España; si bien no puede menos de reconocer y declarar, que la República democrática federal es la que más garantías ofrece para el práctico ejercicio de las autonomías política y administrativa reunidas, ó sea de los Fueros de Navarra.*» (letra jasoa gurea. OLAVE, *Constitución futura...*, op. cit., 10. orr.)

(84) PAREDESek aipatua, op. cit., 150. orr.

(85) Ikus HUICI URMENETA: «Arturo Campión. Aproximación a un vasco desconocido», *Muga*, 1980, 9. znb., 62. orr.

(86) Campionek, foruak eta eskualdeen autonomia iraunkorki bermatzeko formularik onena federalismoan zekusan. Ez zion ardura, ordea, errepublika federal edo monarkia federal gisa mamitzea. Ikus CAMPION, Arturo: «Fuerismo, regionalismo y federalismo», *España Regional*, III, 761-772, 857-871 orr.; IV, 1-11, 289-299. orr., 1887-1888 (orain: *Obras Completas*, XV, 133-181. orr., Mintzoa, Iruñea, 1985)

(87) Interesgarria litzateke, ea era berean, Bizkaiko *euskalerrriako*-en artean Seiurteko Demokratikoko federalik zegoen ikustea. Egia esan Borbondarren Berrezartze garaiko bizkaitar federalismoa, ez zegoen oso urrun foruzaletasun aurrenazonalista liberalagandik. Horren erakusgarri dira zein baino zein foruzaleago agertzeko *Euskaldun-leguia* eta *Union Vasco-Navarra* egunkariaren arteko etengabeko lehia editorialak. Auzi honek mereziko luke ikertzea (ikus adibidez *Euskaldun-Leguia* errepublikarreko artikuluok: «La verdad se abre paso» 1882.08.13; «No lo entiendo» 1883.06.24; «Contra replica» 1883.07.01; «Recopilación», 1883.07.08; 1883.11.14, e. a.).

ARRESE, Julian: *Descentralización universal ó el fuero vascongado aplicado a todas las provincias*, Imp. De Victoriano Suárez, Madril, 1873 (FSS)

CAMPION, Arturo: «Fuerismo, regionalismo y federalismo», *España Regional*, III, 761-772, 857-871 orr.; IV, 1-11, 289-299. orr., 1887-1888 (orain: *Obras Completas*, XV, 133-181. orr., Mintzoa, Iruñea, 1985) (FSS)

*EUSKALDUN- LEGUIA. Semanario Republicano Democrático Federal*, Bilbo, 1882-1883 (FSS)

JAMAR, Joaquin: *Lo que es el fuero y lo que se deriva del fuero*, Establ. Tipográf. del Aurrerá, Donostia, 1868 (FSS)

*LAU-BURU. Diario de Pamplona*, Iruñea, 1882 (AGN)

*LAURAC-BAT. Organo del pacto vasco-navarro*, Bilbo, 1869 (Eusko Legebiltzarreko Liburutegia)

OLAVE, Serafin: *Bases para la reorganización del ejército español partiendo del supuesto de abolición de las quintas*, Madril, 1871 (Olave agiritegia: AGN)

OLAVE, Serafin: *Antiguas tradiciones de Navarra y su oposición al absolutismo*, Madril, 1875 (Olave agiritegia: AGN)

OLAVE, Serafin: *Reseña histórica y análisis comparativo de las constituciones forales Navarra, Aragon, Cataluña y Valencia*, Imprenta, estereotipia y galvanoplastia de Aribau y Cia., Madril, 1875 (Olave agiritegia: AGN)

OLAVE, Serafin: *Tradicón y progreso*, Bartzelona, 1877 (Olave agiritegia: AGN)

OLAVE, Serafin: *El pacto político como fundamento histórico general de la nacionalidad española y especialmente como manifestación legal de la soberanía independiente de Navarra...*, Imprenta de Nueva Prensa, Madril, 1878 (Olave agiritegia: AGN)

OLAVE, Serafin: *El bu del socialismo y la unión de la democracia*, Imprenta de la Nueva Prensa, Madril, 1878 (Olave agiritegia: AGN)

OLAVE, Serafin: *Constitución futura de Navarra. Bases redactadas según el espíritu de los antiguos Fueros acomodados a las formas modernas, y aprobadas en Tudela el 4 de Marzo de 1883 por la Asamblea Regional del Partido Republicano, Democrático, Federal, Navarro*. Establecimiento tipográfico de Casiano Jáuregui, Calahorra, 1883 (FSS)

PI Y MARGALL, Francisco: *Las nacionalidades*, Imprenta de Enrique Rubiños, Madril, 1882 (1. arg. 1876) (FSS)

## 4. 2. Literatura kritikoa

AGIRREAZKUENAGA, Joseba et al.: *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia. 1808-1876*, Eusko Jaurilaritza, Gasteiz, 1993

AGIRREAZKUENAGA, Joseba et al.: «Crisis del Antiguo Régimen y revolución liberal», AGIRREAZKUENAGA (zuz.), *Gran*

*Atlas Histórico de Euskal Herria. Nosotros los Vascos*, Lur, Donostia, 1995, 289-304. orr.

CASTELLS, Luis: «El sexenio democrático y su repercusión en Guipúzcoa», *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario oblatae*, EHU, Gasteiz, 1985, 2. bol., 1271-1289. orr.

CHAVIER, Antonio: *Fueros del Reino de Navarra*, Recuerdos del Reino de Navarra, VI. bol., Amigos del Libro Vasco, Bilbo, 1985

CHUST, Manuel- PIQUERAS, José A. (komp.): *Republicanos y repúblicas en España*, Siglo XXI de España, Madril, 1996

ESTEBAN, Miguel Angel: «De la esperanza a la frustración», TOWNSON, Nigel (arg.), *El republicanismo en España (1830-1977)*, Alianza Universidad, Madril, 1994, 87-112. orr.

ESTORNES, Idoia: «Aproximación a un estudio de las elecciones y partidos políticos en Euskadi desde 1808 hasta la dictadura de Primo de Rivera», AROSTEGUI, Julio et al., *Historia del pueblo vasco*, Erein, Donostia, 1979, 3. bol., 153-187. orr.

ESTORNES, Idoia: *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*, Eusko Ikaskuntza (Cuadernos de Sección. Historia y Geografía nº14), Donostia, 1990

ELIZONDO, Joaquín: *Leyes del Reyno de Navarra*, Recuerdos del Reino de Navarra, V. bol., II. partea, Amigos del Libro Vasco, Bilbo, 1985

FERNANDEZ SEBASTIAN, Javier: «Republicanos vascos en vísperas de la revolución de 1868: federales y fueristas», *Cuadernos de Alzate*, 1988, 9. znb., 16-30. orr.

GARCIA-SANZ, Angel: *Republicanos navarros*, Pamiela, Iruñea, 1985

GONZALEZ-DORIA, Fernando: *Historias de las constituciones españolas de Godoy a Suarez*, Cometa, Madril, 1986

GRAN ENCICLOPEDIA NAVARRA, XI bol., Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea, 1990

HENNESSY, C. A. M.: *La república federal en España. Pi y Margall y el movimiento republicano federal 1868-1874*, Aguilar, Madril, 1966

HUICI GOÑI, María Puy: *Las Cortes de Navarra durante la Edad Moderna*, Madril, 1963

HUICI URMENETA, Vicente: «Arturo Campián. Aproximación a un vasco desconocido», *Muga*, 1980, 9. znb., 56-65. orr.

HUICI, Vicente - MADARIAGA, Juan: *Euskal Herria egungo aroan: materiale eta agiriak*, V bol., Kriselu-UNED, Bergara, 1989

JUTGLAR, Antoni: *Pi i Margall y el federalismo español*, II Bol., Taurus, Madril, 1975

LACARRA, José María, «Estructura político-administrativa de Navarra antes de la Ley paccionada», *Príncipe de Viana*, 92-93 znb., Iruñea, 1963, 231-248. orr.

MARTINEZ, María Soledad - SANTOS, Francisco: «Guerra y cambio político», TORRE, Joseba de la (ed.), *Navarra siglo XIX. Cien*

*años de historia*, Instituto Gerónimo de Ustariz, Iruñea, 1994, 219-248. orr.

PAREDES, Francisco Javier: *Serafin Olave, fuerista y republicano*, Colección Diario de Navarra, 27. znb., Iruñea, 1983

SANTA MARIA et al.: *Documentos para la historia del regionalismo en España*, IEAL, Madril, 1977

URQUIJO, Mikel: *Liberales y carlistas. Revolución y fueros vascos en el prelude de la segunda guerra carlista*, EHU, Bilbo, 1994



## El difícil regreso. La política del Nuevo Estado ante el exilio guipuzcoano en Francia (1936-1939) <sup>(1)</sup>

PEDRO BARRUSO\*

**S**in ningún género de dudas una de las principales tragedias que ocasionan los conflictos bélicos es el drama de los refugiados. La huida de los no combatientes o de los soldados del ejército derrotado son imágenes que no han perdido actualidad incluso ahora ya en la recta final del siglo XX, centuria que se ha destacado por sus múltiples guerras y ha incrementado de manera espectacular el drama de los desplazados por los combates. La Guerra Civil española, al igual que la mayoría de las guerras, provocó también su oleada de refugiados. Desde los primeros momentos del conflicto, en el mes de julio de 1936, las primeras personas desplazadas de sus hogares, bien por el desarrollo de los combates, bien por el miedo a las represalias de tipo político, empiezan a buscar refugio en territorio amigo, en legaciones y embajadas -fundamentalmente en el caso de Madrid- o en el extranjero como ocurre con los refugiados guipuzcoanos objeto del presente trabajo

Pero - a diferencia de lo que se pudiera pensar inicialmente- el objetivo principal de éstas páginas no es realizar una aproximación cuantitativa al número de personas que abandonan el territorio guipuzcoano, ni determinar el lugar al que se dirigen y cual es el proceso de acogida en sus lugares de destino, de lo que ya existen algunas aportaciones historiográficas, entre las que se pueden citar los trabajos de

\* Departamento de  
Historia II  
Universidad de  
Alcalá

(1) Esta investigación ha contado para su desarrollo con la financiación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco y de la Universidad de Alcalá y se inscribe en la línea de investigación reconocida por la Dirección General de Enseñanza Superior del Ministerio de Educación y Cultura *La Formación de Nuevo Estado. Componentes políticos y sociales del Primer Franquismo* dirigida por el Catedrático de Historia Contemporánea de la Universidad de Alcalá Dr. Feliciano Montero.